

Arratiako Maratoi Txikia hilaren 26an izango da

Arratiako Maratoi Txikiaren 44. edizioa izango da urri bigarrenaren 26an. Arratiako ikastetxeetako guraso alkarteek antolatuta, adin guztietarako lasterketak egingo dira: nagusiak Zeanuritik Igoerrera (11 km), gaztetxoak Arteatik Igoerrera (7 km) eta ume txikienak Igoerrera bertan. Izen-emotea *online* edo egunean bertan egin daiteke; aurretik eginda merkeagoa da. Autobus zerbitzua be egongo da parte-hartzaileentzat Igoerretik Artea eta Zeanurira joateko. **11. orrialdea**



Ane Han taldea badator bueltan

Itzulera(k) izeneko sei kantuko EP bat aurkeztuko dau taldeak. Aurkezpen kontzertua zemendiaren 29an izango da Igoerreko Kultur Etxean.

Endika Parrak (gitarra), Unai Santosek (gitarra), Amaia Izarzugazak (tekladua) Ander Gorostiolak (bateria), Nikita Shemyakinek (bajua) eta Ane Goienetxek (ahotsa) osotuten dabe Ane Han taldearen formazio barria.

Goinetxeren istripuak eragindako etenaldiaren ostean, taldea agerlekuetara bueltatuko da disko barria aurkeztutera. Bertan, aurreko etapako kantaren bat eta kanta barriak jasoten dira. "Bigarren aukera bat emon deusta bizitzak eta hori kantau eta kontetako prest nago" azaldu deutso Goienetxek *BEGITU* emondako alkarrizketan.

Bizitzaren bigarren aukerea eta dana barriro ikasteko prozesuak itxitako sentipenak, ez bakarrik kantuen bitartez, prestatuten dabilan disko-liburu batez be konpartidu gura dau Ane Han-ek. Disko-liburua aurkezpen kontzerturako prest eukitea espero dau. **8. eta 9. orrialdeak**



ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Palestinaren aldeko mobilizazioak eta solasaldia

Sindikatuak lan-ixteak eta Gernika-Palestina Herri Ekimenak elkarretaratze zaratatsuak deitu dabez hilaren 15erako. Hurrengo domekan, hilak 19, 12:30ean Mikel Zuluagak eta Global Sumud Flotillan egondako beste hiru euskal herritarrek bizi izandakoaz eta palestinarren egoereaz egingo dabe berba Arteko Herriko Bentan. **5. orrialdea**



ARRATIA/ZEBERIO

Ondarearen jardunaldiak gurean

Ondarearen Europako Jardunaldiek arkitekturea hartu dabe ardatz aurtengoan eta *BEGITU*ren eremuko 8 herritan ondarea erakusteko hainbat ekintza antolatu ditue; bisitaldi gidatuak, erakusketak edo ibilbideak, berbarako. Datorren hamabosaldian Arantzazun, Areatzan, Diman, Lemoan, Zeanurin eta Zeberion dagoz antolatuta ekintzak. **5. orrialdea**



IGORRE FISIOTERAPIA ZENTROA
Elexalde, 4
48140 Igoerre
94 631 55 08
igorre@bizkaifisios.com

ANDRA MARI KLINIKEA
Pontzi Zabala, 1
48960 Galdakao
94 457 23 64
galdakao@bizkaifisios.com

ZEANURI

Jon Urutxurtuk Jatsuko haur koloniari buruzko liburua aurkeztuko dau Zeanurin

Jon Urutxurtu, Zeanuriko historia-lariak, *Manuel de Ynchausti eta Lurdes Euzko Aur-Etxea kolonia (Jatsu, 1937-1939)* liburua aurkeztuko dau urri bigarrenaren 24an, 19:00etan, Zeanuriko Kultur Etxean. Bizkaiko Foru Aldundiak argitaratutako lan honek, Gogora Institutuaren eta Gernika Gogoratuzen laguntzeagaz, Jatsuko haur koloniaren historia eta euskal kulturearen transmisioan izan eban garrantzia aztertzen dau. **7. orrialdea**

Literatura txokoa

DIESEL

Zazpi kontakizun laburrez osotuta dago idazlan hau.

Eros eta Tanatos siamesak dirako idea zaharrak zeharkatzen ditu 7 ipuinok. Alderik alde.

Bestalde, egileak beronen adin-kide leitekezan gizonezkoak protagonista eta kontalari, baten izan ezean, familia buru gehienak, ume txiki edo koskortuagoak daukiezanak, obsesino, depresino eta beste jotako morroiak protagonistatzat.

Gure gizarteko holango gizaseme motaren argazki psikologiko zehatza egin deusku Bertol Arrietak: janari moduak, aitatasunari zertzeladak, andrenganako jarkerea, euren "neurak" eta abar. Hori guztia, sarri, umore finez edo baltzez, gizon-zekoon portreta patetikoa islatuz.

Batzuetan, oster, *Errudun* amaie-

rako klimaxa mantsotu egiten dau alperreko azalpena emonda (bertan ertzainetxeko talde ezagutza saioan xehetasun lar emoten ditu). Edota, *Burkina Faso 1987* narrazioan azaltzen dan ataundar margolari zaharren hizkera neutroa (gipuzkera arruntean egin baleu sinisgarriagoa litzateke personaia).

Bi doberman beltzean, andra-gizonen harreman betekizunen errutinari atxikitako gizonezko obse-siboak muzin egiten deutso ezkon-taz kanpoko abentura jarraitzeari, ume txikerragaz dagoala, txakur era-soa jazoten dan une larrian, hareen amasestuak maitalearen orgasmo amaseagaz alderatzen ditu.

Ipuinik biribilenak, zinema eta li-teraturea ditu ardatz, *Proust, Proust, Proust* kontakizunean, andrazko

ahotsez, bera eta askoz zaharragoa eta esperientzia handiagoko praka-dunaren arteko harreman intelek-tual hutsa, lotura sexualik bakoa baleitekela agertuz.

Zurrutari santuari omenaldia *Death Kafean*, umorea nagusi mo-rrozkoaren txilinpín ibilbidean zehar Donostiako hainbat taberna eta bestelako zuloetan, eros kaskarrean amaitzen bada be, morroiaren eda-be erromesaldia.

Gainerako kontakizun bietan, *Gor-pu eta arima* eta *Hain mutil ona zen*, antz-antzekoak, protagonistak umetako eskolakideen heriotzaz kezkatu eta obsesionetan dira.

Hizkera aberatsa eta arinaz estu ma-nejetan dau errelatoa Arrietak, irakurte-rraza eta umoretsu eginaz leidutea.

Lasai D



Bertol Arrieta

Diesel

Alberdania, 2025

116 orrialde

TELEFONO INTERESGARRIAK

Larrialdiak

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00
SOS DEIAK 112

Guardiako farmaziak

09:00etatik 22:00etara

Urri bigarrenaren 13tik 19ra

Traver. Bedia. J.A. Agirrerren enparantza z/g

Tel.: 94 631 39 50 eta 649 686 305

22:00etatik 09:00etara

Goiria Montoya. Amorebieta-Etxano. (11-17)

Urri bigarrenaren 20tik 26ra

Andrea Lavin Abadia. Lemoa. Atubxa Sailburua 1

Tel.: 94 631 30 18 eta 652 733 820

22:00etatik 09:00etara

Melero. Amorebieta-Etxano. (18-24)

Urri bi. 27tik zemendiaren 2ra

Goikoetxea. Dima. Ugarana 33

Tel.: 94 673 70 54 eta 619 524 057

22:00etatik 09:00etara

Sarasketa. Amorebieta-Etxano. (25-31)

Zeberioako ez dau guardiarik egiten.

Urte osoan. 22:00etatik 09:00etara

Gometza, Ana. Francisco Kortabarria 2. Basauri.

Medikuak

Arantzazu: 94 600 74 63

Artea: 94 673 92 11

Areatza: 94 631 71 52

Bedia: 94 631 34 13

Dima: 94 680 19 74

Igorre: 94 600 74 63

Lemoa: 94 631 31 16

Ubide: 945 45 03 61

Zeanuri: 94 673 91 49

Zeberio: 94 648 01 85

Udaletxeak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 05

Areatza: 94 673 90 10

Bedia: 94 631 42 00

Dima: 94 631 57 25

Igorre: 94 631 53 84

Lemoa: 94 631 30 05

Ubide: 945 45 03 22

Zeanuri: 94 673 91 46

Zeberio: 94 648 10 79

Arratiako Udalen

Mankomunitatea 94 631 17 17 /

mankomunitatea.arratia@bizkaia.org

Gorbeialde Landa

Garapenerako Alkartea

94 631 55 25 / gorbeialde@gorbeialdea.com

Areatzako Parketxea 94 673 92 79

IKE 94 673 62 51 / kulturetxea@igorre.net

Euskotren 94 433 33 33 / euskotren.eus

Areatzako Notariotza 94 673 92 26

Errota Fundazioa

688 854 543 / info@erota.eus

Arratiako Musika Eskola

94 631 73 52 / www.arratiakomusikaeskola.eu

Bizkaibus 94 612 55 55

3917 linea. Bilbo-Ospitalea-

Lemoa-Zeanuri

Bilbotik. Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik

22:15era orduro. Jaiegunean orduro

07:15etik 22:15era.

Zeanuritik. Lanegunetan: Lehenengo

05:00etan. Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua

22:00etan. Zapatuetan: Lehenengo

05:00etan. Orduro: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunean: 07:45etik 21:45era orduro.

3911 Linea. Bilbo-Galdakao

Ospitalea-Lemoa-Durango-Elorrio

Bilbotik. Lanegunetan: 07:00etatik

22:00etara orduro. Zapatu eta domeketan

Durangoraino.

Elorriotik. Lanegunetan 06:45etik 20:45era

orduro.

Durangotik. Lanegunetan: 07:10etik

21:10era orduro. Zapatuetan: 06:30etik

21:30era orduro. Jaiegunean: 07:30etik

21:30era orduro.

3912 Linea. Bilbo-Ospitalea-

Lemoa-Durango-Ermua-Eibar

Bilbotik. Lanegunetan: 06:30etik 22:30era

orduro. Jaiegunean: 07:30etik 22:30era

orduro.

Eibartik. Lanegunetan: 06:00etatik

21:00etara orduro. Zapatuetan: 06:20tik

21:20ra orduro.

Jaiegunean: 07:20tik 21:20era orduro.

3925 linea. Bilbo-Lemoa-

Otxandio-Ubide

Bilbotik. Lanegun, zapatu eta jaiegunean,

Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro.

Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Ubideetik. Lanegun eta zapatuetan:

06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Jaiegunean: 08:45etik 20:45era bi ordurik

behin.

* 08:45ean, 14:45ean eta 18:45ean urteten

diran zerbitzuak Barazaren gelditzen dira.

Otxandiotik urtekerak. Lanegun eta

zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro.

Jaiegunean: 08:55etik 20:55era orduro.

3927 linea. Bilbo-Lemoa-Zeanuri

(autopistatik)

Bilbotik. Lanegunetan: 07:00etatik

21:00etara orduro. Zapatu eta jaiegunean ez

dago zerbitzurik.

Zeanuritik. Lanegunetan: 07:00etan lehena,

eta 08:15etik 21:15era orduro. Zapatu eta

jaiegunean ez dago zerbitzurik.

3928 linea. Artea-Zeberio-Ugao

Zeberiotik Ugaora. Lanegun eta

zapatuetan: 07:00, 08:20, 09:10*, 11:00;

11:45*, 14:10, 15:00, 16:10, 18:30*, 20:20.

*Basauriraino bakarrik.

Basauritik Zeberiora. Lanegun eta

zapatuetan: 10:00, 12:45*, 19:20.

*Artearaino bakarrik.

Ugaotik Zeberiora. Lanegun eta

zapatuetan: 07:20, 08:40, 10:20, 11:20, 13:05,

14:30, 15:30, 16:30, 19:40, 20:40.

Arteatik Ugaora. Lanegun eta zapatuetan:

06:50, 08:00, 14:00, 16:00.

Ugaotik Arteara. Lanegun eta zapatuetan:

13:05, 15:30, 20:40.

Igorretik Ugaora. Lanegun eta

zapatuetan: 07:55ean.

Ugaotik Igorrera. Lanegun eta

zapatuetan: 07:20ean.

Zeberiotik Arrigorriagara. Jaiegunean:

08:10, 11:10, 14:10, 17:10, 20:10.

Arrigorriatik Zeberiora. Jaiegunean:

10:20, 13:20, 16:20, 19:20.

La Union 94 427 11 11

Bilbo-Gasteiz

Lanegunean: Ubidekoak 06:45ean eta

08:45ean urteten dau eta Otxandioakoak

16:00etan. Zapatuetan: Ubidekoak 09:15ean

urteten dau.

Jaiegunean: Ubidekoak 10:30ean urteten dau

eta Otxandioakoak 18:30ean.

Gasteiz-Bilbo

Lanegunean: Ubidekoak 15:15ean eta

16:15ean urteten dau eta Otxandioakoak

10:30ean.

Zapatuetan: Ubidekoak 16:30ean urteten dau

eta Otxandioakoak 10:30ean.

Jaiegunean: Ubidekoak 16:30ean urteten dau.

Argitaratzailea: Zertu Kultur Elkartea. **Helbidea:** Herriko Plaza 24, Artea. **Tel.:** 94 673 90 13. **E-posta:** begitu@begitu.eus. **Webgunea:** www.begitu.eus. **Zuzendaria eta kudeatzailea:** Iñigo Iruarizaga. **Tel.:** 649 979 115. **E-posta:** inigoirua@begitu.eus. **Erredakzino burua:** Beatriz Azpiri. **Tel.:** 649 979 112. **E-posta:** beazpiri@begitu.eus. **Erredakzinoa:** Asier Abrisketa eta Beatriz Azpiri. **Webgunearen arduraduna:** Asier Abrisketa. **Tel.:** 626 647 923. **E-posta:** asierabrisketa@begitu.eus. **Maketazinoa:** Beatriz Azpiri eta Iñigo Iruarizaga. **Banaketea:** Garbikuzi enpresa (Dima), Asier Abrisketa (Igorre), Urko Iurrebaso (Arantzazu, Areatza eta Artea) Nerea Beitia (Bedia eta Lemoa), Irati Urien (Ubide), Kepa Artaraz (Zeanuri) eta Mikel Lazaro (Zeberio). **Tiradea:** 7.300 ale. **Inprimategia:** Bidasoa inprimatzeko zentroa. **Facebook:** Begitu Aldizkaria, **Instagram:** @begitu.eus, **Mastodon:** @begitu, **X:** @BegituEus



Aldizkariaren edukiaren eta diseinu grafikoaren egile-eskubideak Zertu Kultur Elkartearenak dira, baina partekatu daitezke *Creative Commons Aitortu Partekatu lizentziaren bitartez (CC-by-sa)*. Beraz, erreproduzidu, banatu, jente-aurrean komunikau, eraldatu daiteke, beti be iturria aitatzuz eta egiletza aitortuz, eta baldintza horreen pean partekatze.



Ale kopurua 7.300 / Lege gordailua SS-512/02 / ISSN zenbakia 1579-5519

Babesleak:



ZEURE BERBEA

Zeure Berbea

Espazio hau irakurleentzako espazioa da. Irakurleak gura dauana adierazoteko lekua. Bialdu zuen kexak, eskeronak, hausnarketak, burutazinoak edota ideak karta baten bidez eta erabili BEGITU beste irakurleei zuen ikuspuntua helarazoteko. Argitaratuteko derrigorrezkoa da izen osoa, NA-ren zenbakia eta herria emotea.

Zeure Berbea hamar herritan entzungo da. Zeuk daukazu berbea. Entzuteko prest gagoz. Hauxe helbidea:

Zertu Kultur Elkarte
BEGITU aldizkaria
Herriko Plaza 24
48142 Artea
Edo, helbide elektroniko honetara bialdu zure gutuna:
begitu@begitu.eus

BEGITU ALDIZKARIA

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu 15 lerro baino gehiago idazterik. Izena, telefonoa eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITUK eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: begitu@begitu.eus helbidera.

ALKARREGAZ



Areatza Eskupelota Alkartea

Areatza Eskupelota Alkartea 1983an sortua da eta 2013tik aurrera andrazkoen pala atala gehitu eban; gaur egun palak bakarrik jarraituten dau. Azkenengo urteotan indar barria hartu dau: atzen denporaldian 11 ume barri gehitu ditu, eta 6 eta 20 urte bitarteko 42 neska-mutil batzea lortu dau. Honeek, Eskola Kiroleko maila guztietan eta baita federaduetan be lehiatzen dira. Azkenengo denporaldietako lorpenik nabarmenena, herriko gazte asko kirol praktikara erakartea izan da; eta kirol lehiaketa mailan 2024-2025 denporaldian lortutako Bizkaiko txapelketa bi eta azpitzapelketa bi dagoz federaduen mailan.

ERETXIA

Artaburua

Umetan, zapaturo amaren aldeko aitita-amamen etxera joaten ginan, herrira. Amorragarria zan ze zapatu arrastian urteten ginan, bazkalostean, eta ezin izaten nebazan arrastiko marrazki bizidunak ikusi, eta domeka arrastian itzultzen ginanean, justu domekakoak amaitzen ziran. Edade haretan, horrek gauzak gatx ipinten eustazan astelehenean lagunen arteko barriketaldietan parte hartzeako. Amorragarria!

Aitita-amamen herri haretan ez neukan lagun askorik, baina akorduan daukat esan ahal eutsuen txarrena "artaburu" zala. Artaburu irainik txarrena zan eta ez eukan zerikusirik jatorriagaz: Madrilekoa, Bilbokoa izan zeinkean eta ha-ta guzti be, munduko artabururik handiena izan, egiten zenduana-gaz eta egiteko moduagaz eukan zerikusia. Modu desegokian eta gatz eta piper barik jardutea zan. Artaburua ez izateko arau batzuk bete behar ziran, baina arauak ez egozan idatzita eta ez ziran argiak. Eta nonok esan eizula "Ai! Ze artaburu zaran!" azkena zan.

Oindino akorduan daukat! Edozer egin behar zan artaburua ez izateko.

Hamalau urte nituanean Erresuma Batura joan nintzan lehenengoz. Sasoi haretan, Erresuma Batura joateak prestaketa handia behar eban, bidaia ikaragarria zan (ez oingo moduan, Londresera meriendea amaitu ahala joan zaitekez-eta). Ia bakarrik joan nintzan, ni baino urtebete zaharragoa zan beste neskaxi bategaz. Etxe banatan geratzen ginan, auzo berean bizi ziran familia biren etxeetan. Lagunak egin ginan eta egun osoa alkarregaz pasetan genduan; telefono mobikorrik ez egoaneko sasoi, atzerrian ego-teak emoten eban intimidadea-gaz: bata bestea eukan. Gogoan daukat, tanpoi kaja bat erosi genduan eguna eta zelan ibili ginan ingelesezko jarraibideak ulertu guran; zentzubakokeria iruditzen jakun dana. Uste dot horregaitik



MAITE MOLERO RODRIGUEZ

Ingeniaria eta nomada

gurago izan dodazala beti konpresak tanpoiak baino, nahiz eta tanpoiak ipinteko arazorik euki ez, beti lotu izan dodaz atzerriko endredu horregaz.

A-ren etxean ugerlekua egoan, horregaitik ia beti neu joaten nintzan bisitan, kalea zeharkatuz. Konpense-tako, nire etxean nire edadeko neska bi eta mutil bat egozan eta bere etxeko neskaxia baino askoz dibertigarriagoak ziran.

Egun batean bere etxera hurre-ratu nintzan eta A, gu baino zaharrago zan beste neska bategaz, E-gaz, egoan. Familiako alabetako bat zan, astegoi-ena pasetan guraso-enera joan zana. Ederra zan, inteligentea, umoretsua, Oxford-eko unibersidadean ikasten eban, estiloduna, egongelako disko-jogailuan oso musika ona ipinten eban eta kantuan egiten eban... Haxe zan, nik nire bizitza osoan ezetutako artaburu izatetik gehien urruntzen zan personea.

Uste dot, nire lagunetako batzuk egongo dirala pentsetan maitemindu egin nintzala. Ez dot baztertzen, baina orduko momentuan ez neukan hori izentatzeko barbarik eta gainera, ez dau ardura. Ardura dauana da, E euki dodala beti erreferentetzat, nahiz eta seguru- enik bere izakerea neuk asmatutakoa izan, ez nebalako ondo ezetu.

Harrezkeroztik hainbat bidaia egin dodaz, leku askotara, hemendik hara, zelanbaist nomada be izan naz, leku batzuetan urteak emon dodazalako. Leku batera ailegetan nazanean, ez dodaz arauak ulertuten, eta beti sendituten dot, nigan bizi dan artaburua agertze- ar dagoala, E-ren

espirituari deitzean deustat, baina beti bildur horregaz ibiltzen naz: irribarre hau larregizkoa ete da? Berba lar egiten ete nabil? Edo lar gitxi? Ziurtagiri hau hemen entregau behar da? Pasaportea ez deustelako itzuli kexau egin beharko nintzateke? Ez nago behar bezala "jariatzen"; hau da, bidaiaren *flow*-ak ni eroaten ixten? Pazientzia gehiago euki beharko neuke? Gitxiago?

Askok hausnartu ostean, neure teoria garatu dot eta seguru nago E-k bat egingo leukela puntu guztiakaz.

Lehenengotik esan beharra daukat, andrazkoa nagan lez, ezinezkoa egin jatala, bidaietan ezetutako gizonek beste "jariatzea". Atera dodan errazoizko konklusio- na da, pribilegio bat dala. Gai- nera, amorrua emoten deusta, hain barneratuta daukien paternalismoagaz, esaten deustenean lasaiago hartzeako eta egun ba- ten kanean egin behar bada lo, ez dala ezer pasetan. Eurentzat abentura bat da, niretzat arriskua. Horregaitik, aspaldi ebatzi neban kasurik ez egitea buruagaz baietz egin arren, bakean itxi nai- en; izan be, apur bat artaburuak dira, zer egingo deustagu, ba?

Hona hemen artaburua izatearen gaineko neure teoria: Beti da gatxa leku barrietara egokitzea, beti egiten da hanka sartzeren bat, baina beti egiten da aurrera hanka sarteetatik ikasteko gai izan ezker. Baina badagoz beste gauza batzuk ez diranak gaindi- tzen hain erraz ez badozu zeure partetik asko ipinten: errazis- moa, homofobia, klasismoa eta elitismoa, esate baterako; baita pentsatzea, mundua deskubridu- ten zagozala; zeure etxean lege- ez dala inon jaten; bidaia hori magikoa izan dala; bidaiatzean mesede bat egiten dozula; zeo- zer zor deustuela; bidaiatzen ez dauan jenteari zeozer falta jakola, edo zeozer sobratzen jakola; besteek zu baino gitxiago balo- retan dabela bizitza... Hori dana desegoki jotatzea da, ezelango gatz eta piper barik, hori dana artaburua izatea da... Nire teoriaren arabera (eta E-rena).



LUMATUTEN



RAFA UGALDE

Linguizismoaren aurrean sensibilizazinoa (I)

Ohituta gagoz errazismoa edo sexismoa moduko berbak entzuten. Ez jaku ohikoa egiten baina, linguizismo berbea entzutea. Tove Skutnabb-kangas hizkuntzalari suediarrek sortutako berbea da, eta holan definitu eban: Erabilten diran ideologiak, egiturak edo jarduerak, giza taldeen artean poderearen edo baliabideen (materialak eta inmaterialak) banaketa desiguala legitime-tako, egikaritzeko, arautzeko eta erreproduziduteko. Horreen artean sartzean doguz errazismoa, sexismoa, klasismoa... eta linguizismoa. Beste kontzeptu bat be sortu eban: Genozidio linguistikoa edo linguizidioa. Linguizismoaren ondorioetako bat genozidio linguistikoa da. Hori argituta errazago egingo jaku Vox alderdi politikoaren jarkereari eta zenbait epailerenari be kalifikati-boa emotea: linguizismoa.

Sasoia da, bada, hizkuntzala-ritzearen arloan erabilten dan terminologia eguneratuteko, eta hizkuntzen heriotzea edo *language death* moduko ter-minoak egokiago eta zehatzago diran beste batzuekaz ordezkatu-tea. Hizkuntzen heriotzea pentsau lei prozesu natural eta berezkoa dala: hizkuntza bat sortu egiten da izaki bizidunak sortzean diran lez, ugaltu egi-ten da, murritu eta azkenik desagertu; eta prozesu hori mila-laka urtekoa izan leiteke. Egia esan, hizkuntzak bizirik dagoz, sortu egiten dira, eboluzinoa daukie, eta horreetako asko hil egiten dira, izaki bizidunakaz gertatzen dan lez. Inoz prozesu hori naturala izango da, baina hizkuntzen errealdadea, gehie-netan, ez da hori. Linguizidioa eragin egiten dabe; horretar-ako, eragile aktiboak (beren-beregi prestatuak hizkuntza bat hiltzeko) eta eragile pasiboak (hizkuntza bat hiltzen ixtea, edo haren garapena galazotea) era-biltzen dabez estaduek.

ZERTZEAN



ALVARO RABELLI

Atlantidarako bidean



Otsaileko azken euriteak inoizkorik handienak izan dira. Sasoi honetan elurra espero beharko genuen, baina elurra barik lehor samar joan da eguraldia, harik eta fronte lotsati bat gureganatu eta, orduan lotsarik gabe, euri-erauntsiez eraso egin arte. Hain handiak izan dira euriteek eragindako uroldeak, ezen, erreka askoren bazterrek munurrutu diren, olatuek areazko gazteluak desegiten dituzten bezain erraz, ertzetan zeuden gauza guztiak ur oldarrak berekin eroanez. Uroldearen indarrak eroan duen gauzetako bat Arratiako tranbiaren azken unitatea izan da, ibaiertzeko makalen artean lasai atse-den hartzen zirauena. Bere beilegi kolore zaharra itsasontzi bihurtuta ikusi omen dute itsasorako bidean, kontinente galdu baten bila. Baina tranbia ez da bakarrik joan, poetei zerbitzua eman die parnasorako bidean. Horrela, Bilboko zubien azpitik igarotzen, azken jarlekuetan eserita zetorren bat marruskatzen hasi da: -Nerbioi ertzok, tranbia dardara, opor hotsak txaide zabalean... Gazteagoa den beste poeta batek berehala hartu dio kargu -Baina hik zer kristo diok? Hara, gure Laukizko komandantetxo legezaharzalea... ba, jakin beza berorrek nik majoria haundiarentzat idazten dudala nire poesia. Nire poesia oso merkea da, herriaren belariari hartu nion eta herriari debalde ematen diot -"Majoria haundiari?" Zer dok hori ba? "Gehiengo handiari" izango dok hasteko. Gure Sabin maisuari jarraituz, gazte, horiek erdal berba zantar horiek garbittu behar joaguz eta gero goi arnaseko olerkigintza idatzi -Baina zer Sabin eta zer Sabina? Hau gurutzea! Horrelako hizkera eta poesiarekin ez goaz inora, ez du inork ere ulertzen, lau jakintsuren-tzat baino ez da, eta herriarentzat zer? Nork idazten dio gure herriari? Eta gainera zer nik "majoria" esan nahi badut, pot...etatik irteten zaidana idazten dut, argi duzu, Esteban laguna?

-Ejem... ez dut elkarriketa interesgarri hau eten nahi, baina eman dezagun bakea gure artean. Eskerrik asko zuri Gabriel, nire "Majoria haundiari" nire Orozkoko amama maitearen hizkuntza sakratura eramatearren. Eta zuri ere bai, Esteban, gaztetako adiskidetasunagatik. Orain, tranbia beilegi honetan Atlantida-ra goazela ez nuke bion adiskidantza galdu nahi, eta ondo baderitzozue, graffiti bat egingo dugu tranbia zahar honen albo batean, honelako esaldi bat jarritz: "Bakean bizi den gizon baten truk ematen ditut nire bertsoak". Zer iruditzen zaizue?

Ah, eta ez ahaztu, ailegatzten garenean, festa daukagula, nire etxean, Blasen etxean.

* Zertzean atalean argitaratzen doguzan testuak, literarioak edota sormenekoak diranez, heltzean diran mo-duan argitaratuko doguz eta ez doguz gure euskera ereduari ipiniko.

Tarte hau zeuretzako be dago zabalik, holango sormen-lanak BEGITU argitaratu gura izan ezkeru, eskatu egiguzuz argitaratzeko baldintzak begitu@topagunea.com helbidean.

BEGI TXINDORRA

Mobikorrak eta sare sozialak arazo larria bihurtu dira gazteen artean, batez be osasun mentalean daben eraginagaitik. Horregaitik, guraso batzuek seme-alabei mobikorra emotea atzeratzea ebatzi dabe, eta horrek eguneroko bizitzan erronkak sortzean ditu. Gazteek eskolaz kanpoko ekintzak izaten dabez eta batzuetan, euren herritik kanpo.

Horri erantzuteko, Arratian ekintza barri bat ipini da martxan gazteei laguntzeko. Arratiako Udalen Mankomunitateak finantziatuta, Arratiako Merkatar Elkarteak (AME), Altxa Burua Arratiak eta Arratiako Mankomunitateko adikizinoen prebenzino arloak "Gurea erabili zeinke" ekimena abiatu dabe. Igorre eta Lemoako komertzioetan pegatina bereziak ipini dira; gazte batek telefonoa erabili behar badau, komertzio horreetan sartzeako aukerea dauka eta telefonoa erabili.

Ekimenaren asmoa da Arratiako komertzio guztietara zabaltzea. Hortaz, nonok oindino ez badau ekimenagaz bat egin eta egiteko gogoa badauka, deitu dagiala mankomunidadea eta adikizinoen arloagaz ipini daitela hartu-emonetan.

Altxa Burua





Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa

LORAZAINTZA

Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48. 142 Artea
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostisl.com



BEER & EDARIAK
Guillermo 659 48 28 39

Fernando 699 29 67 17	Arkaitz 677 46 40 91
Eduardo 647 72 96 24	Goldor 666 58 20 06

Pozuetz poligonoa, 10 LEMOA • beeredariak@gmail.com





Ortodontzia
Implanteak
Estetika

Marina Urigoitia Aldekoa
Odontologoa

Bidebarri 1. behea
48140 Igome-Bidaia
T. 94 631 50 39
Idazgaitza Zerbaita: 900
R.P.S. 31/06

ARRATIA/ZEBERIO

Beste sei jarduera oingo hamabostaldian arkitektura ondarea ezetuteko

Aurten, Bizkaiko Ondarearen Europako Jardunaldiek arkitekturea hartu dabe ardatz eta BEGITUREN eremuko 8 herritan, 13 jarduera antolatu ditue. Lehenengo zazpiak eginda, oingo hamabostaldian beste sei dagoz programauta.

Erredakzinoa

Lehenengo bisitea izango da 18an, zapatuan, Arantzazun Errotaberri "Arratiako errota zaharra" ikusteko. Goizeko 11:30etik 13:30era izango da bisita gidatua eta partaideak udaletxe ondoan batuko dira. "Errotaberri ezetuko dogu, herriaren erdian dagoana, erroteari ostatu emoteko eregitako etxe baten funzinoa ulertuko dogu, eta bere eraikuntzako ezaugarri garrantzitsuenak ezetuten ikasiko dogu" dinoe antolatzaileek. Hurrengo egunean, domekan, Areatzatik dago bisita gidatua, aurreko domekan, 12an, egin zan

bardina, baina oingoan gaztelaniaz izango da. Egun berean, hilak 19, beste ibilbide gidatu bi eskaintzen dira: bata Diman eta bestea Zeberion. Diman, Antzasti Euskaldunon Etxeak, *Baserri etxearen bilakaera Diman. XVI. mendetik XIX. mendera* izeneko ibilbidea egingo dau. "Zuñña baserrian hasiko dogu bisita gidatua: hainbat birmoldaketa izan dituan arren, XVI. mendearen erdikaldeko jatorrizko tipologia erakusten daben elementuak ditu baserri honek. Ibilbidean zehar, hasikerako baserri mota horren bilakaerea erakusten daben eraikuntzak ikusiko doguz. Artaungo auzunean, baserri 'arratiar' tipikoak dagoz, XVIII.

mendean ezarri ziranak. Horreetako batek, Antzastik, Euskaldunon Etxea, euskal etxe tradizionalaren museoa dauka gaur egun". Artaungo plazan, 10:00etan, batuko dira partaideak. Zeberioko ibilbide gidatua barriz, barroko sasoiko arte herrikoia jakitera emoteko da. *Barañatitik Argiñaoa bestelako mundu baterako leihoak* izenpean, Juanjo Hildagok gidatuta, Ibarrondo auzotik Barañao auzora joango dira partaideak, bertako San Antonio baseleizea ikusteko eta handik Argiñao auzora, San Adrian baseleizea ikusteko. Horreetan, oso arte herrikoia eta ezkutua dago, barroko garaikoa. Sorpresa bat be egingo

ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Palestinaren aldeko mobilizazinoak eta Global Sumud Flotillakoakaz solasaldia

Sindikatuiek deituta, hilaren 15ean, lan-ixteak egongo dira eta Gernika-Palestina Herri Ekimenak antolatuta elkarretaratze zaratatsuak udaletxe aurreetan. Hilaren 19an, domekan, 12:30ean, Mikel Zuluaga Arratiakoa eta Global Sumud Flotillan egondako beste hiru euskal herritarrek Arteako Herriko Bentan egongo dira Flotillaren helburuez eta palestinarrak herriaren egoereaz hausnartzeko.

Erredakzinoa

Arratiak Palestinako herriari bere solidaridadea adierazoten jarraituko dau eta horretarako hainbat ekintza antolatu dira. Izan be, Israelek Ameriketako Estatu Batuetako plana onartu izanak su-etena eta laguntza humanitarioa sartzean ixtea dakar, baina Gazan, etxeak botata, auzoak suntsituta, ur eta elektrizidade azpiegiturak deseginda, ospitaleak deuseztatuta eta 67.000 persona baino gehiago erailda eta populazinoaren zati handi baten gosez hilteko egoeran egonda, Israelen inpunidadeagaz amaitutea ezinbestekoa da. Hori dala-ta, Palestinaren aldeko mobimentuak eta aktibistek mobilizazinoetara deituten segiduko dabe Israeleri boikota egin eta genozidiogaz amaituteko eskatuz.

Lan-ixteak eta elkarretaratzeak "Langileok Palestinarekin!" leloagaz, LAB, CCOO, UGT, ESK, STEILAS, CGT/LKN, Solidari, Hiru eta Etxalde sindikatuak lan-ixte orokorrerako deialdia egin dabe. Egun horretan bertan, 19:30ean, Gernika-Palestina Herri Ekimenak deitutako elkarretaratze zaratatsuak egingo dira BEGITUREN eremuko herrietan, "Genozidioa Stop. Palestinarekin konpromisoa" aldarrikatuz. Atzenengo urteotan, Palestinaren aldeko mobimentua -BDZ, Yala, Palestinarekin Elkartasuna, Gernika-Palestina Herri Ekimena...- etenbarik dabil deitzean, genozidioaren kontrako mobilizazinoetara eta atzen hilabeteotakoek, zeozer aldatu dabeneko itxaropena biztu dabe ekintzailean. Horregaitik, burrukan segidutera deituten dabe.

Flotillakoakaz solasaldia Hilaren 19an egongo dira Arteako Herriko Bentan Mikel Zuluaga eta Flotillan egondako beste euskal herritarrek, bizi izandakoa kontau eta palestinarren egoerearen barri emoteko. Flotillakoak, urri bigarrenaren 6an heldu ziran Loiuko aireportura Mikel Zuluaga, Itziar Moreno, Jota Oses eta Abdel Karim el Khamlich, Israelek preso hartu eta deportau ostean. Aireportuan, ondoetorria emoten eta Israeleri boikot eta Palestina askatu aldarrikatzen, hainbat arratiar egon ziran, Zuluagaren familiakoak eta lagunak, tartean. Israelgo armadak, urri bigarrenaren 3an, Gazatik hur egoanean, Flotilla atzeman eta aktibistak kartzelara eroan ebazan. Atxiloketan zein kartzelan, tratu txarrak jaso izana salatu eben aktibistek. "Tro-

da "saltu bat emongo dogu denporan, zer kontatua daukien leiho biren bitartez" dinoe antolatzaileek. Hitzordua 10:00etan da Ermitabarri auzoko ermitan. Amaitzeko, Zeanurik *Energiaren paisaiak: Barazarreko jauzi hidroelektrikoaren aztarna arkeologikoak* erakutsiko ditu. Hilaren 25ean izango da, 10:00etan. Partaideak Barazar gainan batuko dira, gasolindegian. Barazarren lurpeko zentral erraldoia eregi zan Bilbo Handiko industriei elektrizidadea heldu arazoteko. Proiektuak ia hamar herrixken suntsipena eka-

rri eban Araba iparraldean eta ehunka familia langile etortea eragin eban. Zeanurin, Undurraga eta Ipiñaburu landa auzoetan langileen bizilekuen aztarnak dagoz, baita energia paisaia honen beste arkitektura elementu batzuk be. Eta horren barri izango dabe bertaratutakoek. Atzenengo bisitea Lemoan izango da hilaren 29an, 11:00etatik 13:00etara, 1917an lanean hasi zan Cementos Lemoa zementu fabrikea ikusteko. Bertaratutakoei, gaur egun eraikuntzan ezinbestekoa dan zementuaren fabrikazino prozesua azalduko jakie.



pa israeldarrek gure itsasontzia atzeman ebenean, soldaduek oihuka galdetuten eben: *Who is Migel?* Neu nintzan Migel hori eta brankara eroan ninduen. Ahozpe, hiruzpalau soldadu gainean ipini ziran eta astindu galanta emon eusten, oindino be buruan daukadana. Hori guztia etenbarik tiro egiteko keinuak eginez eta laser argia buruan edo bihotzean zala" azaldu eban Mikel Zuluagak Naiz agerkari digitalari urri biga-

rrenaren 12an emondako alkarriketan. Kartzelan be jarraitu ebazala tratu txarrak adierazo eban. "Gaeuz, patio baten eta matoiez ingurututa, 480 persona egoten ginan lurrean jesarrita, eskuak bizkarrean lotuta, orduak eta orduak. Oindino eskumuturrak odoleztatuta daukaguz" azaldu eban. Eta europarrak holan trautata izan baziran, zelan tratauko dituen preso palestinarrak galde-tuten dabe Flotillakoek.

ARRATIA/UBIDE

Diru piloa xahutzen da Arratia eta Ubiden zaborra txarto botateagaitik

Arratian, orokorrean, jenteak txarto bananduten dauala zaborra gauza jakina da. Arratiako Udalen Mankomunitateak hainbat kanpaina egin ditu herrietan zabor boltsak zabalduz eta erakutsiz jenteak zaborra banandu barik, boltsa bakar baten, errefusara botaten dauala zabor guztia. Eta hori diru asko kostetan jakie herritarrei tasak ordaintzerakoan.

Erredakzinoa

Arazorik handiena da jenteak ez dakiala ondo bananduten, Arratiako Udalen Mankomunitateko Aitor Uriguen Ingurumen Teknikariaren arabera. "Gitxien banatzen dana da organikoa, eta organikoa

da etxean sortzean diran hondakinen erdia. Hori ondo egin ezkerogauzak asko aldatuko ziran eta tasak ez ziran hain altuak izango. Gogoratu egin behar da legeak esaten dauala tasakaz finantziau behar dala zerbitzu osoa: bilketea, hondakinen tratamentua eta

abar".

Garestiena errefusaren kanona eta tratamentua da. Horregaitik, bertara errefusa ez dan zaborra botateak karutu egiten dauz asko tasak. Organikoaren tratamentua, esate baterako, errefusarenaren prezio erdia da eta etxeetan sor-

tzean dan zaborraren erdia da organikoa. Gainera, "ontzi arinak be errefusara botaten ditu jenteak". Hori ez bananduteak "ehunka mila euro" botatea dala adierazo dau Uriguenek. "Ondoen egiten dana da papera eta kartoia. Ontziak nahiko txarto, organikoa oso txarto eta tamainu handiko tresnak be oso txarto".

Tamainu handiko tresnak edo Garbigunera eroan edo AUM-era deitu behar da egun eta leku jakin baten aterateko eta AUMk jaso dagian.

Bilketa espezifikokoak egiteko kanpaina

Arratiako Udalen Mankomunitateak % 100eko dirulaguntza jaso dau Bizkaiko Foru Aldundiaren eskutik hondakinak eraginkortasunez eta modu iraunkorrean kudeatzeko. Hori dala-ta, hondakinen bilketa espezifikoko kanpaina bat egingo da hala eskatzen daben udalerri guztietan.

"Etxeko jatorriko edo antzeko hondakinen ezohiko bilketak dira, edukiontzietan botaten ez diranak edo Garbigunean onargarri ez diranak, baita legez kanpoko hondakinen beste isurketa batzuk be behar dan moduan kudeatuteko. Hondakin horreek kontrol barik ixten dira bilketa puntuen inguruetan, edukiontzietatik kanpo, eta legez kanpoko beste kokaleku batzuetan. Hondakin horreek obra hondakinen nahasketak izaten dira, aurrez abisau barik itxitako tamaina handiko hondakinak, industria-hondakinak, oro har geldoak, esate baterako pneumatikoak, automobiletako beirak eta paratokeak, neurri handiko enbalaje hondakinak, alanbre hondarrak, eta abar" dinoe AUMetik.

Horretarako, Arratiako Udalen Mankomunitateak mota honetako hondakinen bilketa eta tratamentu egokirako zerbitzuak kontratauko ditu.

DIMA

Onintza Enbeitak bere liburua aurkeztuko dau

Bezperan Landa Eremuko Andren Nazinoarteko egunda dala-ta, urri bigarrenaren 16an, 19:00etan, Onintza Enbeitak *Bizitza baten txatalak* bere liburua aurkeztuko dau Abaroan.

Erredakzinoa

Bizitza baten txatalak. Andre bat lurrari emana liburuan Enbeitak baseriko bizimodua, bere horretan, erromantizismo barik erretratetan dau. Gure amamen, birramamen edo amen bizimodua kontetan dau andra baten ahotan. "Hamabi gaineko eta hamabi azpiko izan ziran Feli Madariagaren arrea. Hareek hartuta joan zan Muxikako Igertu baserrira. Hortik aurrera bizitza ederra eregi eban Julian Gabikaetxebarrira senarragaz eta bien artean izan ebezan hiru alabakaz. Laurogeta hamar urtetik gora, oindino be hazurrek ixten deusienean jorran egitera joaten da ortura" dino sinopsiak.

Landa Eremuko Andren Nazinoarteko Eguna

Urri lehenengoaren 15a, Landa

Eremuko Andren Nazinoarteko Eguna da. Landa eremuko andrak munduko populazioaren laurden bat dira eta euren lana funtsezkoa da muturreko pobrezia, gosea eta aldaketa klimatikoaren kontrako burrukan. Gainera, "planetearen elikagien erdia ziurtatzen dabe eta ingurumena eta biodibersidadea zaintzean dabe" NBEko webgunean azaldutakoaren arabera.

Funtsezko lana egin arren, bizimodu gogorra eta askotan, egoera zaurgarrian dagoz landa eremuko andra eta neskatiak, batez be indigenak. Gainera, aldaketa klimatikoak eragin handiago dauka andra nekazariengan. Hori dala-ta "paradigma aldatu" beharra dagoala eta horren gainean kontzientzietako da nazinoarteko eguna.

Liburu aurkezpena
Bizitza baten txatalak
Onintza Enbeita Maguregi
Urri bigarrenaren 16an
Abaroan

HOLANG ARRATIA GURA DOGU?

TAMAINU HANDIKO HONDAKINAK **GARBIGUNERA** EROAN
edo **MANKOMUNITATERA** DEITU
94 631 17 17

LEMOA

Lian artistearen beste mural bat Arraibin

Erredakzinoa

Artearen bidez Lemoa eraldatzeko proiektuaren barruan dago Lian Monserrate muralista ezagunak Arraibin egindako murala. Horma-irudiak errekan sartutako oin batzuk erakusten ditu, mundu guztiak bizi izan dauan sensazio hori gogora ekarteko, erreka ondo-ondoan baina ostenduta, dagoan leku honetan. Auzokideek eskatu ebelako ebatzi zala Arraibin egitea azaldu deutsu BEGITU Esther Iturrioz Lemoako alkateak. "Arraibin badabiz beste mural bi edo hiru eskatuten eta beste auzo batzuetakoak be bai. Idea da proiektu honegaz jarraitzea. 2025erako aurrekontuetan euki dogun diru partidea, mural honegaz amaitutzat emoten da, baina datorren urterako be egongo da beste diru partida bat, seguruenik. Izan be, susmatzen dogu lemoaztarrek egindako proposamenen artean egongo dala honegaz segidutea, ze jentea oso pozik dago". 2025ean hiru mural egin dira, Agirre Lehendakari kalean bi eta Arraibiko hau.

Aurrekoan gertatu zan legez, oingoan be muralak alkargune bat, jentearen topagune bat sortu dauala dino alkateak. "Jentea gelditu egiten da muralari begira, museoetan legez. Izan be, artelan erraldoia da horma-irudia. Askok museoetara joateko ohiturea daukie, beste askok ez, baina hemen kalean daukie artelana. Eta alkargunea be bada. Auzoan badagoz betidanik Lemoan jaiota eta bizi diranak Arraibin eta hemen, oso

herri anitza daukagu, leku askotatik etorritako jentea eta batzuetan, egunerokotasunak, ez deutsu ixten harremanak sendotuten, justu-justu agur esateko baino ez. Baina hemen, horma-irudiaren atxakiagaz, jentea gelditu eta berba egiten dau".

Artistearen eta lemoaztarren arteko hartu-emona be ederra izan dala dino Iturriozek.

Oinak errekan

Horma-irudiak, eguneroko edertasunaren gainean hausnartzera konbidetan dauan lana da; uretako freskotasuna, natureagazko loturea eta memoria partekatua ekarten dituana gogora. "Jente askoren ustez, Lemoa herri itsusia da. Nire esperientziak kontrakoa esaten deusta eta horregaitik eskaintzen dot nire hondar aletxo moduan, diskursoa aldatuteko. Lemoaren ondoan ur kristalinoa eta hotza daukien hainbat erreka dagoz. Udako egun baten oinak erreka ur izoztuan sartzeako esperientzia bakarra da. Gogoratzen dan esperientzia bat. Lemoa be herri bakarra da; gogoratu daigun ze polita dan" dino Lian Monserrate horma-irudiaren egileak.

Lianen hirugarren lana

Lemoan, munduko muralgile onenetakoa dan Lian Monserrateren beste mural bi dagoz. Bata, Kultur-gunean, 2022an egindakoa, eta bedar gainean tximeleta bat eta atzean ume bat iruditzen dauana, eta bestea, Agirre Lehendakari kalean aurtengo bagilean egindakoa, Arlanpe kobazuloan inspirautakoa.



ARANTZAZU/AREATZA/LEMOA

Arantzazu, Areatza eta Lemoako udalek argazki lehiaketak abiatu dabez datorren urteko egutegiak egiteko

Arantzazuko lehiaketako gaia, herriko arbolak eta basoak dira, eta Areatzakoa eta Lemoakoa, herria bera.



Erredakzinoa

Lehiaketa horreetatik 12 argazki aukeratuko ditue udalek 2026ko egutegia egiteko.

Arantzazuko lehiaketan parte hartzeako zemendiaren 3ra arte

bialdu daitezke argazkiak, 3 gehie-nez, idazkaritza.arantzazu@bizkaia.org helbidera. Formatu digitalean aurkeztu behar dira eta modu horizontalean. Irabazleak aukeratzeko, parte hartzean daben argazkiak ikusgai egongo dira liburutegian

zemendiaren 12tik 26ra eta jenteak botoa emon ahal izango dau. Lehenengo hirurak sarituak izango dira.

Areatzako lehiaketara, barriz, formatu horizontaleko argazki bakarra bialdu leikie parte hartu gura dabenek, urri bigarrenaren 31 baino lehen, lotura honen bidez: https://lanbur.eus/Argazki_Lehiaketa. Nonok laguntzea behar izan ezker udaletxera jo leike.

Lemoara be partaide bakoxtak formatu horizontaleko argazki bakarra aurkeztu ahal izango dau urri bigarrenaren 31 baino lehen kultura@lemoa.eus helbidean. Irabazleak Udalak izentautako epaimahai batek aukeratuko ditu. Aukeratutako 12 argazkiak egutegian argitaratuko dira eta opari bana izango dabe. Sari banaketea abenduan izango da.

ZEANURI

Jon Urutxurtuk Manuel de Ynchausti eta Lurdes Euzko Aur-Etxea kolonia (Jatsu 1937-1939) liburua aurkeztuko dau



Erredakzinoa

Jon Urutxurtu, Zeanuriko historialaria, Bizkaiko Foru Aldundiak ointsu argitaratu dauan Manuel de Ynchausti eta Lurdes Euzko Aur-Etxea kolonia (Jatsu, 1937-1939) liburua egi-lea da. Ikerketa lan honek Gogora Institutuaren, Gemika Gogoratuzen eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzea izan dau. Urri bigarrenaren 24an, 19:00etan aurkeztuko dau liburua Zeanuriko Kultur Etxean.

Liburua, ehun bat argazki eta dokumentugaz ilustrata, milaka ume

hartu ebezan kolonia ugarietako baten oinarritzen da, Lapurdiko Jatsu herrian, 21 neska eta 13 mutil euskaldun artatu ebazan Lurdes Euzko Aur-Etxea kolonian, hain zuzen be, eta bere jatorria, finanziaizinoa, barne-antolaketea eta abar aztertuten dauz. Han bizi izan ziran 1937 eta 1939 urteen bitartean 6 eta 13 urte bitarteko 34 ume. Izaera autonomoa eukan kolonia bat zan, baina Eusko Jaurilaritzaren menpeko haur kolonien kide: ikastetxe-barnetegi bat zan, bertan ostatua, elikadurea, irakaskuntzea, erlijino prestakuntzea eta osasun laguntzako zerbitzuak biltzean ziran.

Memoria historikoa, iraganari eta etorkizunera begira

Jatsuko 34 haur horreen artean lau zeanuritar egon ziran: Mikel, Elixabete eta Arantza Goikoetxea neba-arrebak eta hiru horreen lehengusua zan Alexander Mendibil.

Lurdes Euzko Aur-Etxea aitatzea Manuel de Ynchaustiren obra personalaz berba egitea da. Ynchausti nazionalidade estatubatuarra eta filipinar jatorria eukan euskaldun aberats, "apal, solidario, katoliko,

euskaltzale eta demokrata" zan, bere aberastasunaren zati bat Lurdes Euzko Aur-Etxea sortu eta mantendutera bideratu ebana. "Kolonien instalazino bikainez gainera, bere barne-antolaketa ona azpimarratu behar da. Hemen emondako hezkuntzak euskerearen eta euskal kulturearen eguneroko presentzia eukan ezaugarri, eta erbestean egon arren euskal kultureari eutsi eutsien" dino Urutxurtuk. Sasoi hartako Eusko Jaurilaritzako sail desbardinek egiten ebezan txostenetan, hainbat arlotan, -elikadurea, osasuna, higienea, hezkuntza...- koloniak eukan maila bikaina azpimarratzen da. Manuel de Ynchausti, bere andrea Ana Belén Larrauri eta bertan lan egin eben langileen aitortzea be egiten da liburuan.

"Aldi berean, oindino munduan errepetiduten dan iragan traumatiko baten oroimena gorde gura da eta belaunaldi barriak sensibilizau. Beraz, ikerketa hau ez da iraganari begiratzea bakarrik, etorkizunari begiratzen eta harrera herrialde moduan daukagun paperari buruz hausnartzen lagundu gura dauan tresna be bada" dino egileak.

ANE GOIENETXE

Ane Han taldea bueltan da 'Itzulera(k)' diskoagaz

2022an, lehenengo diskoa grabaketa fasean egoanean, Ane Goienetxe, Ane Han abeslariak oso istripu larria euki eban eta bertan behera geratu zan ha diskoa. Oin, orduko material eta material barriakaz, eta taldean aldaketa batzuk eginda, *Itzulera(k)* izeneko sei kantuko EP bat aterako dau taldeak. Momentuz, kantuok banan-banan aurkezten dabiz *online*. Aurkezpen kontzertua zemendiaren 29an izango da Igorreko Kultur Etxean eta ordurako, disko-liburu fisikoa eukitea espero dabe.

Erredakzinoa

2022an Gorantz EP-a grabau zenduanetik, Itzulera(k) da lehenengo lana, ezta?

2022an kaleratu genduan *Gorantz* gero egongo zalako EP-aren grabaketa fasea, baina justu bitarte horretan nik euki neban oso istripu larri bat. Horregaitik sasoi horretan hori bakarrik atera genduan, gerora diskoa aterateko asmoa geunkan, baina bertan behera geratu zan dana.

Niretzat, istripu horren ostetik barriro dana hastea izan da. Lehenengo eguneroko bizitzako gauzak berreskuratuten joan naz, eta gerora, horreek gauzak bideratuta egon diranean, musikea terapia moduan erabili dot, bestelako terapia moduan. Holan, bertan behera geratu zana barriro apur bat berreskuratuten hasi nintzan, eta idazteko eta kantetako bueltetako asmoa etorri jatan. Ez genkian noz eta ez genkian zelan bueltauko ginan, baina bai euki neban argi hasikeratik hori zala asmoa. Bizitzak erakutsi deusta ez dakigula noz datorren amaieraa eta badaezpada, gura dodana da konpartidu, orduan bageunkana eta oin sortu doguna. Hori da helburua: jenteagaz konpartidutea, alkarbanatutea eta hori bizitea danon artean.

Orduantxe Gorantz zana, gaur egunean bihurtu da beste kontu bat.

Zer bihurtu da?

Kontua da EP-a datorrela, sei kantak osotutako EP bat. Hazkuntza prozesu honek emon deustan indarra erakutsi gura dot. Uste dot barruko indar horrek, hemen mantenidu nauala eta horregaitik kanta barriak sortu dira prozesu honetan. Baten bat bada lehen-

dik existiduten zana eta sasoi harretan aurkezpen kontzertuan jo genduana Lemoan, Lemoakustik jaialdian. Gainontzekoak barriak dira.

Pop-rock estiloko musikea da. *Gorantz* pop-rock-a zan eta oin be horregaz gatoz. Kanta bakotxagaz, landuten dot gai bat niretzat esanguratsua izan dana; emozino desbardinetatik abestuta. Hau da, batzuetan etsipena dago kantua- ren oinarrian, beste batzuetan amorrutik sortzean da, eta beste batzuetan esperantzatik. Uste dot argitasunez betetako kantak dirala, musika doinu desbardinakaz. Lehengo Aneren kanta batzuk dagoz eta beste batzuk oraineko Anerenak, barne alkarizketa batzuk be badagoz.

Zure izena hartu arren, Ane Han taldea da, ezta?

Bai. Ez nator bakarrik, bideoan *Itzulera(k)* aurkeztu genduan, ikusten dan moduan. Konposizino prozesuan Endika Parra eta biok egon gara. Endika gitarra- jolea eta ekoizlea da.

Taldean 2022an egon ziranak baino gehiago dagoz. Aldaketa batzuk egon dira eta taldekide barriak sartu dira. Oin seikotean gatoz: Endika Parra gitaran, Unai Santos bigarren gitarra, Amaia Izarzugaza teklista moduan; Ander Gorostiola baterian, Nikita Shemyakin, bajuan eta neu ahotsean. Hori da Ane Han taldearen formazino barria eta holan aurkeztuko gara datorrenari begira.

Taldearen izenak Ane Han izaten jarraituko dau. Mantenidu dogu, Han horrek asko batzean daualako, asko biltzean dau. Han horrek adierazoten dau danok daukagun leku hori, imaginarioa izan ala ez.



Zure lehenengo proiekturako hartu zenduan Ane Han izena eta izen hori izan eban taldeak Lemoakustik-en aurkeztu zinienean.

Bai. Italian bizi nintzanean, nire abizena ahoskatzea gatxa egiten jakien eta orduan eurentzat Ane Han nintzan. Eta orduan, neure proiektuarentzako izena ipintean, hori gustau jatan. Aurretik, Larregi taldeagaz, zuzenekoetan parte hartu izanda nengoan, baita disko-ko abestiren baten grabaketan be. Sorotan Belegaz 20. urteurrenaren bueltan egin eben kontzertuan egon nintzan piano-jole, baina *Gorantz* izan zan nire lehenengo proiektua eta horretarako hartu neban Ane Han izena.

Itzulera(k) diskoa noz egongo da kalean?

Kontua da, datozen asteetan kaleratuko dogula lehen *singlea*

bideoklip bategaz. Bideoklipa grabau genduan eta lehenengo aurkeztuko doguna horixe izango da. Gero joango gara apurka-apurka beste kantak aurkezten. Sei dira guztira.

Aurkezpen kontzertua be zehaztuta daukagu, zemendiaren 29an izango da Igorreko Kultur Etxean. Aurkezpen kontzertuan erakutsiko dogu zelan gatozen eta zer kontetan gatozen. Jomuga puntua izango da, sano berezia. Eta niretzat berragerpen bat izango da, itzulera bat, ze ez da hasikera bat. Hasikerea izan zan orduan, eta hau itzulera bat da. Inoz baino zentzu gehiagogaz, ze orduan EP-ak baeukan izena *Itzulera(k)* eta pasautakoak pasauta, izena mantentzea baino ez dago.

Parentesia artean dago k baldako nire itzulerea, baina beste

askorena be bai. Entzulea eroan gura dot berari transmitiduten deustan itzulerara, kanta bako- txak jasoten dauanagaz edo bere esperientziakaz... Ze nik neure kantetan jorratuten dodanak ez dauka bakarrik nigaz zerikusia. Egia da kontetan nabilala zer dan barriro lehenengo aldiak bizitea- rena, zer dan barriro lehenengo inpresinoz jositako prozesua bizi- tearena... ze hori izan da nire es- perientzia eta birsortze prozesua. **Kantuak zeuk eta Endika Pa- rrak sortutakoak dira. Zelan izan da sortze prozesua?**

Ba batzuetan sortze prozesuan badator letra eta letratik gero doinuak urteten dira. Beste ba- tzuetan igual Endika dator doinu bategaz eta hori bideratzen dogu kontau gura dodana zelan kontau eta zelan garatu ikusteko.

Baina egia da bizi izandako ho-



nek asko inspirau nauala eta orduan zentzu horretan erraztasuna euki dot hori idazteko. Badaukat zer kontau eta horrek erraztu dau sortze prozesua. Batzuetan melodiak etorri dira lehenengotik, bes-

te batzuetan, hitzak. Batzuetan idatzitik transmitidu dot, kontau gura nebana eta beste batzuetan musikeak transmitiduten dau gehiago berbak baino. **Kantuak online aurkeztu os-**

tean, EP fisikoa egongo da?
Bai, sei kantak osotutako CDa. Baina asmoa ez da CDa bakarrik ateratea, disko-iburu bat aterateko asmoa daukagu. Idazten ibili

naz eta hori konpartidu gura dot. Ez da izango kanten letrek osotuako liburu bat: kantetan esan ezin dan hori guztiori ulertuteko osogarri moduko bat izango da.

Oin digitalean kaleratuko dira kantak, baina gurako geunke zuzenean jotzen dogunerako egotea disko-liburua, entzuten dan kantu hori bere osotasunean ulertzen lagunduko dauana, letren nondik norakoen barri emon eta entzulea beste hausnarketa batera bultzatzeko... Egunerokotasuneko zalantzak, bildurak, esperientziak... jasoz.
Gure asmoa da aurkezpen kontzerturako eukitea zeozer fisikoa. Oindino ez dakigu ziur eukiko dogun, baina gurako geunke. **Guztiz osatuta zagoz?**
Bueno, dana da prozesua beti. Prozesu oso luzea eta ikasi dot be bai inoz ez zagozala osotasunean. Beti dago hobetzeko bidea, beti dago hobetzeko tartea... Baina zorionez, eta hau inportantea da, bigarren aukera bat emon deusta bizitzak eta hori kontau eta kantetako prest nago.



Gida Baimenak
Animalia Arriskutsuak
Nautika
Arma lizentziak
Segurtasun pribatua
Garabiak

ORDUTEGIA
Asteazken eta ostegunetan
09:00 - 13:00
Astelehen, astearte eta ostegunetan
16:00 - 20:00

www.psicotecnicoganguren.eus - 611 72 88 55
info@psicotecnicoganguren.eus

Arratiako Andra Sortzaile eta Ekintzaileen V. Azoka

Emakumeek bultzatutako proiektu ezberdinak ezagutuko ditugu

ZEANURIN

2025EKO URRIAK 26
11:00etatik 14:30era
ZEANURIKO PLAZAN

ERDU, GOZATU ETA GUREA ZAINDU!

Produktu eta zerbitzuak:
artisautza, bitxiak, jakiak, janzkiak, mokautxoa berton...

Arantzazu

Aratzza

Artea

Bedia

Dima

Igorre

Lemoa

Zeanuri

TXIRRINDULARITZEA

Lehiaketetarako talde bat sortuteko batu dira eskualdeko mendiko bizikletako ziklistak

Erredakzinoa

Hainbat gabezia bete gura ditu proiektuak. Izan be, mendi bizikletako talderik ez dago Arratian eta ez da inoz egon; eta Arratian ziklismo eskolak egon arren, kadetetatik aurrera ez dago ezer. Proiektu honek, mendiko bizikleta modalidadean, Kadeteetatik Elite mailarainoko adin tartea hartzean dau. Proiektuan, Bedia, Igorre, Lemoa eta Zeberioko ziklistak dagoz, Kadete, Gazte, Junior, 23 azpiko eta Elite mailako neska eta mutilak. Gehienak, Elite mailakoak.

Durangaldean eta Urdaibain egin dan legez, asmoa eskualde osoa hartzean dauan taldea egitea da. Izan be, ziklismo talde batek gastu handiak daukaz, enpresa pribaduen dirulaguntzak ez dira nahikoak eta erakundeen laguntzen premina dago. Eredu hau, eskualde mailakoa, hartu gura dabe taldearen bultzatzaileek. Taldeak urtenbide bat be emon gura deutse beste lekue-tako eki poetan dagozan arratiarrei kanpora joan behar ez izateko, baita ekipo barik lehiatzen diran Arratiako mendi bizikletako ziklistei be.

Ekimena, ziklistena euren izan da. "Lehiaketetan ikusita Arratia eta inguruko ziklistak talde desbardinetan edo talde barik ibiltzen ginala, talde bat eukitea interes-

garria iruditu jakun" azaldu deustso taldeko batek BEGITURI.

Oin negoziazioetan dabiz Arratiako Udalen Mankomunitateagaz eta udaletxeakaz taldea aurrera atera ahal izateko, eta Lemoako txirrindulari kluba jabilko proiektuari laguntza legal eta juridikoa emoten. "Etorri dira laguntza eskatzen, ikusi dogu proiektu polita dala eta laguntza legala emoten gabiz" adierazo deustsie BEGITURI Lemoa Txirrindulari Elkartetik.

Lehiaketak helburu

Ziklismo talde batek egin behar dauana da lehiaketetan parte hartu eta oindino izenik ez daukan talde honek 2026ko Green Series-en parte hartzea dauka helburu. Martiaren 15ean da serie horreetako lehenengo lasterketea eta bagilaren 21ean azkena. Espainiako txapelketetako lasterketetan be hartu gura dabe parte, batez be, Euskal Herri- tik hur egiten diran konpetizinoetan.



PELOTEA

Profesionalen kontrako lehen partidu biak irabazi dauz Xabi Rekaldek

Erredakzinoa

Xabier Rekalde Azkuenaga pelotariak hilaren 5ean egin eban debuta profesionalakaz. Lagunarteko partidu barik, jarraian egin dau saltu B serieko 4 1/2 Eusko Label Txapelketara eta ezin hobeto hasi dau bere ibilbide profesionala. Izan be, lehenengo partiduan 22-13 irabazi eban Dimakoak Joseba Aldaveren kontra eta bigarrenean, hilaren 11n, 22-11 nagusitu zan Ander Muruaren kontra.

Lehenengo partidua irabaztekoan, Rekaldek BEGITUN onartu

eban urduritasuna igarten ebalat: "batez be frontoira sartzerakoan eta telebista han ikustean". Halanda be, frontoia betetan hasi eta lagun zein familiaren animoak igarterakoan gero eta gusturago sentidu zan: "Dimako jentea oso pozik urten zan irabazterakoan eta hori da gehien balio dauana". Ligaxka fasean dago oindino Rekalde eta lehenengo biak irabazita, finalurrekoetara ailegetako aukera asko ditu. Datorren asteetan Asier Agirre eta Iker Salaberria faboritoak izango ditu aurkari.

MENDIA

Lemoatx Traileko 17K lasterketarako dorsalak agortu dira

Erredakzinoa

Zemendiaren 16an jokatuko da Lemoatx Traileko IX. edizinoa Lemoan. Lasterketa bi dira, 25 eta 17 kilometrokoak, eta mendi martxa bi, 25 km-koa eta 8,5 km-koa. Izen-emote epea zemendiaren 9ra arte izan arren, 17 km-ko lasterketako dorsalak agortu dira eta 25 km-ko lasterketarako eta martxetarako izen-emoteak be "erritmo onean" doazala eta, urtero legez, dorsal guztiak agortutea espero dabela azaldu deustsie BEGITURI antolakuntzatik. Izena Ganzabal Mendi Taldearen webgunean emon daiteke.

Dana dala, parte-hartzeak aspal-di goia jo dauan arren, antolatzaileek andren parte-hartzea handitutea gura dabe. Izan be, gizonak partaideen % 70 dira; andrazkoak % 30. Hori parekatzea gatx ikusten dabe antolakuntzatik baina andrak partaideen % 40ra ailegetea, "pauzu handitzat" jotzen dabe eta dei berezia egiten deutsee mendi korrikalari andrazkoei Le-



moatx Trailen parte hartzeako.

Lasterketa giroa Lemoako eskoletan egongo da. Musikea, txosnea, taloak eta mendiko materiala erosi ahal izateko salmahaiak egongo dira han.

Bederatzigarren edizinoan be ezinbestekoa izango da boluntarioen "lan bikaina, euren laguntza barik ezinezkoa litzateke eta be-

deratzi edizino daroaguz euren fideltasunari esker" azpimarratu gura izan dabe antolatzaileek.

Zemendiak 16, zapatua

08:00retan, 25 km-ko mendi martxearen urtekerea.
09:15ean, 25 km-ko lasterketea.
10:00etan, 17 km-ko lasterketea.
10:45ean, 8 km-ko martxea.

FUTBOLA

Andrazkoen Arratia A eta Bk eta Lemoako Harrobik irabazi atzen jardunaldian

Andrazkoen Arratia A eta B taldeek eta Lemoako Harrobik irabazi egin eben urri bigarreneko bigarren astegoienean jokatutako partiduetan, gizonatzkoen Arratia Ak bardindu egin eban eta Arratia Bk ezin izan eban punturik batu.

Erredakzinoa

Andrazkoen Arratia Ak 2-1 irabazi eban Elorrioren aurka hilaren 12an jokatutako partiduan. Olaitz Arroyo eta Irune Egiguren izan ziran etxeko-koen golegileak. Lau jardunalditan 7 puntu batu dauz Arratia Ak eta bosgarren doa sailkapenean. Datorren partidua Bilbao Artizarra- ken kontra izango dau etxetik kanpo hilaren 19an, eguerdiko 12:30ean.

Andrazkoen Arratia Bk be garaipe- na lortu eban hilaren 12an, 2-4 Uritarraren kontra. Iratxe Bernaola (bi), Naiara Jove eta Uxue Aurtinetxe izan ziran golegileak. Jardunaldi bi jokatuta, 6 puntugaz bigarren dago sailkapenean. Datorren partidua Ugeragaren aurka jokatuko dau Urbietan hilaren 18an, arrastiko 19:45ean.

Gizonatzkoen Arratia Ak husna bardindu eban hilaren 11n Abadiñoren aurka Igorren eta 10 puntugaz hirugarren dago sailkapenean.



Andrazkoen Arratia A eta Elorrioren arteko partidua.

Datorren jardunaldian Galea A-ren kontra jokatuko dau etxetik kanpo hilaren 18an, arrastiko 18:30ean.

Gizonatzkoen Arratia Bk, oster- a, 2-1 galdu eban Etxebarria Aren zel- laian hilaren 11n eta hamalagarren da sailkapenean 3 puntugaz. Dato- ren partidua etxean izango dau, Montefuerte A taldearen kontra hilaren 19an, eguerdiko 13:00etan.

Lemoako Harrobik 2-1 irabazi eban San Migelen aurka hilaren 11n etxean. Asier Beldarrain eta Jon Amuriza izan ziran golegileak. Lau jardunalditan 10 puntu lortu dauz Lemoako taldeak eta laugarren doa sailkapenean. Datorren jardunaldian lurretan jokatuko dau lurretako Aren kontra, hilaren 18an, arrastiko 16:30ean.

MENDIA

XXIV. Arratia-Otxandio-Zeberio-Ubide Mendizale Eguna Otxandion izango da

Hilaren 26an ospatuko da XXIV. Mendizale Eguna, eta aurten Otxandion izango da hitzordua.

Erredakzinoa

Egunak Arratia, Otxandio, Ubide eta Zeberioko zazpi mendi talde batuko ditu: Amexier, Argiñatx, Joko Alai, Ganzabal, Mirugain, Austarri eta Lamino, eta inguruetako mendizaleek ziteari hutsik ez egitea espero dabe antolatzaileek. Topaketea 08:30ean izango da Otxandioko plazan, eta ibilbide bi egongo dira aukeran: 20 kilometrokoa eta 14 kilometrokoa. Izena emotea derrigorrezkoa da eta epea hilaren 23an amai-

tuko da. Parte-hartzeak 5 euro balio dau, baina 14 urtera artekoek doban izango dabe. Herri bakotxak bere izen-emote telefonoa dauka: Areatza (646 355 550), Zeanuri (616 839 550), Otxandio (722 571 873), Lemoa (675 701 359), Ubide (608 936 330), Zeberio (656 415 597) eta Arantzazu (682 110 450). Eguna amaitzeko, 13:30ean, parte-hartzaileek kopaua izango dabe Otxandioko paseolekuan, parte-hartze pulserea aurkeztuta.



TXIRRINDULARITZEA

AZEko txirrindularitza eskoleak 5, 6 eta 7 urteko umeak hartuko ditu

Erredakzinoa

Oin arte Arratia Ziklista Elkarteko (AZE) txirrindularitza eskoleak Eskola Kirolako umeak bakarrik hartzean ebazan, hau da 8 eta 14 urte bitartekoak, oin, barriz, 5, 6 eta 7 urtekoak be hartuko ditu. Izan be, oin arte, edade ho-

neetakoei, Oskar Garro Igorreko txirrindulariak emoten eutsezan eskolak, baina aurten ezin dauala eta AZEk hartu dau ardurea. Leire Aurrekoetxea AZEko presidentearen esanetan, "matrikulazioak arrakasta handia izan dau". Gainera, Igorreko Batz enpresea AZEko babesleetako bat izango da.



MARATOI TXIKIA

44. Arratiako Maratoi Txikia hilaren 26an izango da

Arratiako Maratoi Txikia 11 km-ko lasterketearen 44. edizioa egingo da hilaren 26an. Guraso alkarteek antolatuten daben lasterketa hau edadearen arabera distantzia desbardineta probak ditu, umeak eta helduak kirola egitera bultzatzeko.



Erredakzinoa

Holan, nagusiak, distantzia luzee-na egingo dabe Zeanuritik Igorrera; gaztetxoak Arteatik urtengo dira eta ume txikerrenek Igorren zirkuitutxo bat egingo dabe. Nagusiak Zeanuritik urtengo dira 10:15ean, Zeanuri eta Igorre arteko 11 kilometroak egiteko.

Lasterketa hau, lasterketa herrikoi askoren neurrikoa da eta bertan, atletismo taldekoek, zaletuek eta gurasoek hartzean dabe parte. Igorretik Zeanurira joateko autobusa ipiniko dau antolakuntzeak. 2007tik 2011ra jaiotakoek, Arteatik Igorrera, 7 km-ko ibilbidea egingo dabe, Arteatik 10:30ean urtenda. Igorretik Arteara joateko be ipiniko

dau autobusa antolakuntzeak. Txikerrenek Igorren egingo dabe galapan. Lasterketak 11:30ean hasiko dira. 2013tik 2015era jaiotakoek 1.300 metroko ibilbidea izango dabe; 2016tik 2018ra jaiotakoek 800 metrokoa eta 2019tik aurrera jaiotakoek 300 metrokoa.

Izen-emotea

Izena emoteko modu bi dagoz, online edo egunean bertan Igorreko eskoletan 08:45etik 09:15era arte; Igorren galapan egingo daben umeen izen-emotea 10:30etik 11:00etara izango da. Zeanuritik urteten dabenek 15 euro pagau behar dabe eta Arteatik urteten dabenek 8 euro. Adin txikikoek 3 euro. Bezperako, hilak 25, 12:00ak arte izena online emoteko aukea be badago, kronoak.com webgunean. Holan egin ezker merkeagoa da Zeanuri eta Arteatik urteten diranentzat; 12 eta 6 euro pagau behar dabez-ta hurrengo.

MENDIA

Aner Zuluaga igorreztarra nagusi Sorginen lasterketa laburrean

Erredakzinoa

Hilaren 5ean jokatu zan Sorginen mendi lasterketearen 18. edizioa, Atxondoko Axpen hasi eta amaitu zana, Urkiolako Parke Naturalean. Ibilbide bi izan ziran: 21 kilometroko lasterketa nagusia, 1.700 metroko desnibel positiboduna, eta 11,7 kilometroko proba laburra, 890 metro desnibelekoa. Azken honetan, Aner Zuluaga igorreztarra izan zan protagonista nagusia. 01:05:58ko denporeagaz helmugaratu zan lehenengo, eta holan eskuratu eban garaipena lehia estu baten ostean. Izan be, atzetik oso gertu ibili ziran David Rua atxondoztarra (01:06:03) eta Markel Barrio agoiztarra (01:06:16), helmugan hamazortzi segundoko alde txikiagaz baino ez ziran banandu. Markel Irigorri igorreztarra laugarren sail-



katu zan, hiru minutu geroago. Andrazkoen lasterketan, Malen Osa oñatiarra izan zan irabazlea. Podiumean lagun zituan Alazne Lozano elgetarra eta Ma-

ria Baseta atxondoztarra. Itsasne Bengoetxea zeanuriztarrak laugarren egin eban, 01:30:04ko denporeagaz helmugaratuta, Arratiako kirolarien maila ona berretsiz.

JANTZEA

Aukeran Dantza
Konpainiak *Amama*
ikuskitzuna dakar Igoerrera

Erredakzioa

Urri bigarrenaren 25ean, 20:00etan, Aukeran Dantza Konpainiaren *Amama* jantza ikuskitzuna ikusteko aukerea egongo da Igoerreko Lasarte Aretoan. Lan honegatik, 25 urtetan lehenengo aldiz, Aukeran Dantza Konpainia umeen mundura hurreratzen da, ipuin tradizionalen irakurketa barritu honegatik

eta koreografia barriakaz. Zazpi ipuin kontetan dira, zazpi euskal lurraldeetako herri banatan kokatutakoak, gai eta personaia desbardinakaz, euskal jantzetan oinarritutako koreografiaren bidez. Aukeran Dantza Konpainia Donostian sortu zan 1997an, jantziari eta koreografoen ekimenez. Jantza tradizional eta garaikidearen mestizajearen oinarritzen dira euren lanak.



PAILAZOAK

Antxo ta Pantxaren
Eman bizia lanaren atzen
emonaldia Igoerran

Erredakzioa

Urri bigarrenaren 18an, 17:00etan, Antxo ta Pantxa pailazoen transplanteen gaia landuten dauan *Eman bizia* ikuskitzuna eskainiko dabe Igoerreko Lasarte Aretoan. Urte biren ostean, ikuskitzuna herri askotan antzeztu eta gero, Igoerreko, atzen emonaldia izango da, zemendian lan barri bat estreinauko dabe-ta. Pantxo pailazoa dan Iker Ur-tiaga Dimakoaren familian oinarritutako istorioa kontetan da *Eman bizia* lanean: Euskal Herrian egindako lehenengoetako gibel transplantea, hain zuzen

be. "Ez neban amaitu gura edo-zein lekutan, guretzat erreferen-te dan leku baten amaitu gura neban. Horregaitik izango da Igoerran azken emonaldia" azal-du deutso begituri Ur-tiagak. **Sinopsia** Antxo ta Pantxa ospitalera joan dira. Bertan, Antxo transplante bat egiteko zain dago. Transplantearen gaia landuko dabe gure lagun biek. Zelangoa dan ibilbidea, zelango bildurak bizi izaten diran, eta hau dana jolasez, magiaz eta jantzez bideratuta. Zeharkako gai gehiago be baditu: murrizketak, euskerea, aniztasuna, humanidadea...



URTEURRENA

Harriketarrak Gazte Asanbladak bere 26.
urteurrena ospatuko dau hilaren 25ean

Lemoako gazte asanbladeak egun osoko jai egitaraua prestatu dau, urri bigarrenaren 25erako, bere 26. urteurrena ospatuteko.



Erredakzioa

Beste ekintza batzuen artean, ez da faltauko asanbladakideen bazkaria. Gauean, Akëer, Indabe, Toc eta Marte Lasarte taldeek eta Junapu abeslariak kontzertuak eskainiko dabez Karabie Gaztetxe ondoko karpan. Lemoako Karabie Gaztetxea sortu eban Harriketarrak Gazte Asanbladak 1999. urtean. Lemoako harrobian, karabian, egoan txabo-

la bat hartu eben horretarako eta horregaitik ipini eutsien Karabie izena. Urtebete beranduago erre egin zan txabolea eta eskolak izan-dako Udalaren eraikineran aldatu ziran gazteak. Harrezkeroztik, era-gile aktiboa izan da eta talde asko-ren sorrerea Gaztetxean egon da edo bertan batzean dira; Lemoa Harrera, erre-fujiaduei laguntzeko taldea edo Zaplast! talde feminis-tea, tartean. Kultura ekintza ugari

be antolatuten dabe Harriketarrak Gazte Asanbladakoek, eta urte honeetan erreferente bihurtu dira Lemoan. Euren urteurrena ospatuteko, poteoak, bazkaria, serigrafia tailerra eta kontzertuak antolatu ditue. Bazkarirako txartelak egue-netan, 20:00etan, erosi leikiez Gaztetxean, 8 euroan soldata bakoek eta 10 euroan soldata-dunek. Pikoteoa, paellea, pos-trea eta kafea dagoz prezioaren barruan. Rock, pop eta ska esti-lotako musikea egiten daben tal-deek animauko dabe gaua.

Urri bigarrenak 25, zapatua 11:15ean, txupina. 11:30ean, serigrafia tailerra To-rontileren eskutik. 13:30ean, triki-poteoa Naroa eta Ibaigaz. 15:00etan, bazkaria. 17:30ean, poteo animaua. 21:30ean, kontzertuak: Akëer, Indabe, Toc, Marte Lasarte eta Junapu. Ostean, DJ Zatzaz. Ogi-tartekoak salduko dira karpan.

ANTZEZLANA

Zapata gorriak
antzerkia Lemoan

Erredakzioa

Urri bigarrenaren 24an, 18:30ean, Judith Poves eta Iker Etxarri ipuin kontalariak, 4 eta 8 urte bitarteko umeentzako *Zapata gorriak* lana taularatuko dabe Lemoako Kotxepin Kultur Etxean. "Oinez goaz aurrera, zapatak, oinetan minik ez hartzeako jantzen doguz. Zapata gorriak. Gorria pa-sinoaren kolorea da, pasino barik ez dago ametsik eta amets barik ez dago irudimenik... Haizea gure protagonisteak, egunero liburu bat irakurteko ohi-turea dauka. Horregaitik irudimen izugarria dauka, baina honek sarritan arazoetan sartzean dau. Bere ikaskideek ez dabe ulertzen, eta askotan beraren kontra egiten dabe. Egun baten ikaskideek, Haizea-ren liburu hartu eta apurtzea ebazten dabe. Eske-rrak Haizea azkar konturatu eta iges egiten dauala. Lortuko dau iges egitea?" dino sinopsiak.



KONTZERTUA

Postal kolekzionistak
taldearen
kontzertua Lemoako
Kultur Etxean

Erredakzioa

Hilaren 17an, 20:00etan, Postal kolekzionistak pop eta rock musikea egiten dauan taldearen kontzer-tua egongo da Lemoako Kotxepin Kultur Etxean. Postal kolekzionistak Iñigo Asensio musikariak 2018an sortutako taldea da. Euskal musikagintzan eskarmentu handiko musikariak biltzean ditu: Iñigo Asensio, Michel Longaron, Ander Zubillaga, Irene Lopez eta Juanjo Falcon, hain zuzen be. Kantauto-re girotik pop eta rock giroetara hurreratzen dan taldea da eta disko bi daukiez kalean: *Azken gaua hirian* (2019) eta *Bagoi hutsak* (2021).



KULTUREA

Ume eta nagusientzako jarduerak
 Diman hilaren 17an

Erredakzinoa

Umeentzako Bariku Txiki ekimenaren barruan *Mad Science* zientzia tailerrak eta nagusientzako *Kilimateriao* bakarrizketak eta bertsopak buztartzen dituan ikuskizuna egongo dira hilaren 17an, Diman.

Kaitin Allenderen *Kilimateriao*, 19:00etan izango da eskolako kamaran. Ikuskizuna Allenderen *Klimaxetik klimateriao eta buelta* bakarrizketatik sortu zan eta bertan, sasoi horretara heltzean diran andren ibilerak kontetan dira. Bakarrizketak Kaitin Allende-
 dek egingo ditu eta bertsopak, Izar Mendiguren eta Oihane Pe-
 rea bertsolariek botako ditue.

Kilimateriao ikuskizunak umorea eta gogoetea buztartzen ditu, andren ikuspegia erdigun-
 ean ipiniz. Ikuskizunak barre egitea eta pentsarazotea bat-
 zean dauz, klimateriaoan askotan isilean bizi izan diran egoerak agerian itxiz.

Umeentzako zientzia tailerrak barriz, 18:00etan izango dira Aba-
 roan eta Lehenengo Hezkuntzako umeentzat dagoz pentsauta.

ERAKUSKETEA

Arpegia eta gorputza ipini dabe zeanuriztarrek minbiziaren gaineko argazki erakusketan

Erredakzinoa


Zeanuriko argazki taldeak antolatutako minbiziaren gaineko erakusketeak hilaren 18an zabalduko ditu ateak eta 22ra arte egongo da ikusgai Kultur Etxean.

Aurreikusitakoak baino argazki gehiago izango ditu erakusketeak; izan be, solidaridadea adierazoteko arpegia erakusten daben 80 zeanuriztarren erretratuak egongo dira. Horreez gainera, Marta Langue eta Carmen Nuñezen gorputzetan minbiziak itxitako errastua erakusten daben argazkiek osotuten eben erakusketea, baina hiru andra zeanuriztarrek be gura izan dabez ebakuntzen osteko orbanak erakutsi, eta 9 izango dira guztira mota honetako argazkiak.

Oindino erakusketea zabaldu barik dago, baina ekimenak arrakasta handia izan dauala azaldu dau Juanma Nogalesek: "Oso harrera ona euki dau. 75 andrek eta 5 gizonek ipini dabe arpegia bularreko minbizia bizi daben edo bizi izan dabenei babesa emoteko. Asko da Zeanuri moduko herri txiki baten. Eta hiru andrek euren orbanak erakutsi gura izan dabez".

Hilaren 18an, 18:30ean, inaugurazinoa egingo da. Han, Languek eta Nuñezek bizi izandakoa azalduko dabe; antolatzaileek mediku baten parte-hartzea be gurako leukie, eta herriko talde baten sorpresatxoa be egongo da.

Arratia helburu
 Argazki taldearen ekimen honek, Udala eta Mazala andra taldearen babesa izateaz gainera, herritarren inplikazino eta parte-hartze handia lortu dau erakusketea zabaldu aurretik. Baina gaixotasuna eta honen eragina personengan eta euren gorputzetan ez danez tokiko kontu bat, antolatzaileek Arratia osoko jenteari egin gura deutsie konbitea erakusketea ikusteko, "interes handikoa" dala eretxita.



BERTSOLARITZEA

Bizkaiko Bertsolari Txapelketako lehen finalaurrekoa Zeanurin

Erredakzinoa

Lehenengo faseko bost saioak jokatu ostean, osotuta geratu da finalaurrekoen lehenengo bueltako zerrendea.

Hilaren 12an Getxon jokatu zan saioaren ostean, ebatzita geratu da zeintzuk kantatuko daben lehenengo bueltako hiru finalaurrekoetan. Holan geratu dira osotuta:

Urri bigarrenaren 26an, Zeanuriko Ibarreta frontoian, 17:00etan:

- Aissa Intxausti Aburruza
- Aitor Bizkarra Ruiz
- Bittor Altube Sarrionandia
- Imanol Uria Albizuri
- Jone Uria Albizuri


• Oihana Bartra Arenas
Zemendiaren 2an, Abadiñoko Probalekuan, 17:00etan:

- Aitor Etxebarriazarraga Gabiola
- Gorka Pagonabarraga Agorria
- Enare Muniategi Etxabe
- Maite Sarasola Isazelaia
- Txaber Altube Sarrionandia
- Unai Mendiburu Valor

Zemendiaren 9an, Barakaldoko Lasesarre kiroldegian, 17:00etan:

- Ibai Amillategi Omaetxebarria
- Irune Basagoiti Agirre
- Lurdes Ondaro Mallea
- Mikel Goiriena Larrazabal
- Onintza Enbaita Maguregi
- Xabat Galletebeitia Abaroa

Sarrerak eskuragai dagoz www.bertsosarrerak.eus webgunean.



DUNBA

Lanbide Heziketa barria

Zulaibar Lanbide Ikastegia

Arratiako Zulaibar Lanbide Ikastegia hezkuntza eraldaketa batean murgildu da aurten: Lanbide Heziketaren Antolamendu eta Integraziorako Lege Organiko barria ezartzen hasi da. Erreforma honek Lanbide Heziketaren eredua birdefinituten dau, ikasleen gaitasunak eta enplegarritasuna hobetuteko, ekoizpen sareagazko loturea indartuteko eta formakuntza malguagoa, praktikoagoa eta personalizauagoa eskaintzeko asmoagaz.

Aldaketa nabarmenetako bat Lanbide Heziketa dual orokorra ezartea da, ohiko Lanerako Prestakuntza (LP) moduluak ordezkatuz. Lanbide Heziketa dual orokorrak esan gura dau ikasleek lehenengo ikasturtetik bertatik jasoten dabela prestakuntzea bai ikastetxean bai enpresa laguntzai-



leetan. Horrerik esker, hasikeratik eskuratzen dabe lan esperientzia benetako lan inguruneetan, formakuntzearen % 25 eta % 35 arteko egonaldiakaz.

Beste aurrerapausu garrantzitsu bat da orientazino akademiko eta profesional pertsonalizaua,

"Enplegarritasunerako ibilbide personala I eta II" modulu barriakaz eta Lanbide Heziketako ikastetxeetan orientatzailearen figurareagaz indartua. Erronka horrerik erantzuteko, Zulaibarrek Orientazio Taldea sortu dau, maila bitan lan egiten dauana:

alde batetik, ikasleak laguntzen ditu ebatziak hartzeako eta garapen personalerako prozesuan; eta bestetik, tutoretza ekintza plan egituratu bat bultzatzen eta koordinetan dau, norbere burua ezetutea, gaitasun transversalak garatzea, indarguneak identifiketea eta etorkizuneko aukerak esploretea helburu hartuta.

Lege barriak zeharkako moduluak eta hautazkoak be aurreikusten ditu, arlo estrategikoetan espezializetako aukerea emonaz. Zulaibarren, enpresek baloretan eta eskatzen dituen ikaskuntzak indartzeko apustua egin da. Fabrikazino mekanikoko eta elektrizidateko zikloetan, hautazko moduluak eskainiko dira, esate baterako, automata programagarrien (PLC) programazino, robotika kolaboratiboa eta ordenagailuz lagundutako diseinu eta fabrikazino programak (CAM/

CAD/CAE). Gizarte eta kultura zerbitzuen arloan, barriz, personan zentrautako esku-hartze eredu eta metodologiak sartu dira, ikasleak arreta inklusiboago eta profesionalago baterako prestatuz.

Zulaibarren, Lanbide Heziketa barria aukera bat da ikasteko modua eraldatzeko, formakuntza inguruko errealidadeagaz konektetako eta ikasleek esperientzia esanguratsuagoa, praktikoagoa eta etorkizunera bideratuagoa eskaintzeko.



AGENDEA

URRI BIGARRENAK 15
ARANTZAZU

Zemendiaren 3ra arte aurkeztu daitekez argazkiak, III. Argazki Lehiaketarako *idazkaritza.arantzazu@bizkaia.org* helbidera bialduta. Gaia: Arantzazuko arbolak eta basoak.

17:00etatik 19:00etara, astelehenetik barikura liburutegia zabalik.

AREATZA

08:00retatik 21:00etara, ikasgela egunero udaletxean zabalik.

Hilaren 31ra arte, III. Argazki Lehiaketarako argazkia aurkeztu daiteke *https://labur.eus/Argazki_Lehiaketa* estekan. Gaia: Areatza. Laguntza behar izan ezkeru udaletxera jo.

ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Hilaren 25era arte, Arratiako Maratoi Txikian *online* izena emoteko epea zabalik, *kronoak.com* webgunean.

19:30ean, elkarretaratze zaratatsuak udaletheen aurrean Gernika-Palestina Herri Ekimenak antolatuta "Genozidioa Stop. Palestinarekin konpromisoa" lelopean.

DIMA

16:30etik 19:30era, astelehenetik eguenera liburutegia zabalik.

IGORRE

Bonodenda kanpainea zemendiaren 23ra arte martxan herriko 30 komertziotan.

08:00retatik 22:00etara, ikasgela egunero zabalik Kultur Etxean.

Astelehenetik barikura liburutegia zabalik. Astelehenetik eguenera 16:00etatik 20:30era eta eskola opor egun eta barikuetan 09:00etatik 13:30era.

LEMOA

08:00retatik 21:00etara, ikasgela egunero Kotxepinen zabalik.

16:30etik 19:30era, astelehenetik barikura Udal Liburutegia zabalik.

Lemoatx Trail martxa zein lasterketetarako inskripzioa egiteko aukerea zabalik *labur.eus/Lemoatxtrail* helbidean.

Hilaren 31ra arte, aurkeztu daiteke argazki bat Argazki Lehiaketara *kultura@lemoa.eus* helbidean. Gaia: Lemoa.

UBIDE

08:00retatik 21:00etara, Lopena espazioa zabalik egunero.

ZEANURI

Batxiler eta unibersidadeko ikasleentzat goizeko 08:00retatik gaueko 21:00ak arte ikasgela zabalik egunero. DBHko ikasleentzat, astelehenetik eguenera 17:00etatik 19:00etara.

ZEBERIO

Liburutegia zabalik. Astelehen, eguen eta barikuetan 16:30etik 19:30era, martitzenetan 16:30etik 18:00etara eta eguaztenetan 17:00etatik 20:00etara.

Hilaren 22ra arte, Garbigune mobikorra Hogarrean. Onartutako hondakinak: etxekotresna txikiak, sukaldeko tresnak, etxeko orioa (ontzi txikietan), sakeleko telefonoak, kableak, aerosolak, kutsatutako xurgatzaileak, tonerrak, metalezko

edo plastikozko kapsulak, pilak, CDak, DVDak eta kaseteak eta erradiografiak.

URRI BIGARRENAK 16
AREATZA

08:30ean, Uparan Jubilatu eta Pentsiodunen Elkartek antolatuta, Sara-Donztebe-Arizkunera txangoa.

DIMA

19:00etan, Onintza Enbeitaren *Bizitza baten txatalak. Andre bat lurrari emana* liburuaren aurkezpena Abaroan.

ZEBERIO

Zeberioko Austarri-Kortaren 25. urteurrena. 19:00etan, Kepa Perez Urrazaren berbaldia *Haustarriak eta kortabasoak* Zubialdeko Ermita Zahar aretoan.

URRI BIGARRENAK 17
AREATZA

17:30ean, ludotekako zerbitzua erabilten daben umeen gurasoakaz batzarra udaletxeko pleno aretoan.

ARTEA

19:00etatik 22:00etara, barikuetan Gaztelekua zabalik.

BEDIA

Eleizalde Bediako jubiladu eta pensionisten alkarteak antolatutako urtekerea Ezkiora, Ugartebeiti baserrira bisita gidatua.

DIMA

18:00etan, Bariku txiki. *Mad Science* Abaroan.

19:00etan, *Kilimaterioa* ikuskizuna. Bakarrizketak: Kaitin Allende.

Bertsolariak: Izar Mendiguren eta Oihane Perea. Eskolako kamanan.

IGORRE

21:00etan, Suger taldearen kontzertua Axular Herriko Tabernan.

LEMOA

20:00etan, Molatu Produzioak-en kontzertua *Postal kolekzionistak* Kotxepin Kultur Etxean.

ZEBERIO

18:30ean, Ahoztar Zelaietaren *El*

Pradalismo. El ocaso de los JoBuBi liburuaren aurkezpena plazako ermitan.

URRI BIGARRENAK 18
ARANTZAZU

Ondarearen Europako Jardunaldiak. 11:30ean, *Errotaberri ezagutuz, Arratiako errota zaharra* bisita gidatua. Plazan.

AREATZA

09:15ean, eleizan. Arratiako jubiladuen mendi martxea. Uparan Jubilatu eta Pentsiodunen Elkartek antolatuta.

ARTEA

18:00etatik 22:00etara, zapatuetan Gaztelekua zabalik.

DIMA

Asteklima 2025. 10:00etatik 13:00etara, *Karst-a uraren bidean barrena* ibilbide gidatua Inma Mugerza hidrogeologoagaz. Zamakolako aparkalekutik. Aldez aurretik izena emon behar da 94 631 57 25 telefonoan edo *ingurumena.dima@bizkaia.org* helbidean.

IGORRE

17:00etan, Antxo ta Pantxa pailazoen *Eman bizia* ikuskizuna Lasarte Aretoan.

12:00etan, Amaiur Iragiren *Pizpirri, pozgarri eta pizgarri* diskoaren aurkezpena. Axular Herriko Tabernan.

LEMOA

Jubiladuen eguna. 13:00etan, mezea eta ostean Durundi Barri Dantza Taldearen emonaldia; 14:30ean, bazkaria; ostean, Iñaki Basaberen kantaldia.

ZEANURI

18:30ean, Bularreko minbiziaren jardunaldiak. Berbaldiak, solasaldia eta argazki erakusketea. Kultur Etxean.

ZEBERIO

Zeberioko Austarri-Kortaren 25. urteurrena. 09:00etatik 14:00etara, erakusketea Ermitabarriko frontoian eta ibilbidea.

URRI BIGARRENAK 19
AREATZA

Ondarearen Europako Jardunaldiak.



Zaldi mamarroa liburua landuko dabe Arteako Irakurleen Txokoan

Hilaren 17an, eguaztena, 19:00etan izango da Arteako Irakurleen Txokoko hurrengo saioa, ikasturte honetako lehenengoa, Alaine Agirre idazleak gidatuta, betiko lez, Kultur Etxean.

Oingoan Ekaitz Goienetxearen *Zaldi mamarroa* (Susa, 2024) liburua landuko dabe bertaratutakoakaz. Goienetxearen atzen lanean, nortasunaren errastuak, familiaren itzalak eta gizarte garaikidearen kontraesanak jorratzen dira kontakizun indartsu eta liriko baten bidez. *Zaldi mamarroa* istorio ausarta da, irudi bizi eta poetikoz josia, eta irakurlea zalantzen eta emozinoen bidaiara eroaten dau.

Ekaitz Goienetxeak hainbat lan idatzi ditu, beti be idazkera personal eta konprometidua erakutsiz. *Zaldi mamarroa* bere ibilbidean beste mugarri garrantzitsu bat da, irakurleari hausnarketa eta gozamen literarioa batera eskaintzen deusana.

12:00etan, *Areatza mendeetan zehar* bisita gidatua Angel Larreagaz (gaztelaniaz). Gudarien Plazan.

ARTEA

12:30ean, Global Sumud Flotillako lau euskal herritarrazkaz alkarrizketea Herriko Bentan.

DIMA

Ondarearen Europako Jardunaldiak. 10:00etan, *Baserri etxearen bilakaera Diman XVI. mendetik XIX. mendera* ibilbide gidatua. Artaungo plazan.

IGORRE

17:00etan, zinea, *Pitufos*; 19:30ean, *On Falling* Lasarte Aretoan.

ZEANURI

10:00etatik 15:00etara eta 17:00etatik 20:00etara, bularreko minbiziaren gaineko argazki erakusketea Kultur Etxean.

ZEBERIO

Ondarearen Europako Jardunaldiak. 10:00etan, *Barañaotik Argiñaora. Bestelako mundu baterako leihoak* ibilbide gidatua Juango Hildalgogaz. Ermitabarri auzoko ermitan.

URRI BIGARRENAK 20
DIMA

Asteklima 2025. Hilaren 25era arte, *Klima aldaketa hemen dago jada* argazki erakusketea Dimako eskolan, frontoi txikian, udaletxeko arkupean eta frontoi nagusian.

ZEANURI

13:00etatik 16:00etara eta 18:00etatik 20:00etara, bularreko minbiziaren gaineko argazki erakusketea Kultur Etxean.

URRI BIGARRENAK 22
IGORRE

20:00etan, Zinekluba. Jessica Hausner zuzendariaren *Club Zero* filma Lasarte Aretoan.

ZEANURI

18:00etan, Gorbeia Jubilatuen eta Pentsionisten Alkarteak antolatuta, Javier Francia, Iban Ibañez eta Isa Ciudadan berbaldia finantzen gainean. Jubiladuen lokalean.

URRI BIGARRENAK 23
IGORRE

18:30ean, berbaldia, *Euskal diaspora Argentinan*. Axular Herriko Tabernan.

URRI BIGARRENAK 24
BEDIA

17:30ean, Liburu-maleta ibiltaria Amaia Egidazugaz.

LEMOA

18:30ean, Judith Poves eta Iker Etxarriren *Zapata gorriak* umeentzako ipuin kontaketea Kotxepin Kultur Etxean.

ZEANURI

19:00etan, Jon Urutxurturen *Manuel de Ynchausti eta Lurdes Euzko Aur-Etxea kolonia Jatsun (1937-1939)* liburuaren aurkezpena Kultur Etxean.

URRI BIGARRENAK 25
IGORRE

20:00etan, Aukeran konpainiaren *Amama* jantza ikuskizuna Lasarte Aretoan.

LEMOA

19:30ean, Koru Taldeen Topaketea. Xuxurlariak Abesbatza, Mendibaiarte Abesbatza eta Altzaga + Mendibaiarte Abesbatzak Andra Mari eleizan.

begitu 458
2025eko urri bigarrenaren 15a

Harriketarrek Gazte Asanbladaren 26. urteurrena. 11:15ean, txupina; 11:30ean, serigrafia tailerra Torontileren eskutik; 13:30ean, triki-poteoa Naroa eta Ibaigaz; 15:00etan, bazkaria; 17:30ean, poteo animaua; 21:30ean, kontzertuak karpan: Akëer, Indabe, Toc, Marte Lasarte eta Junapu. Ostean DJ Zatzaz.

ZEANURI

Ondarearen Europako Jardunaldiak. 10:00etan, *Energia paisaiak: Barazarreko jauzi hidroelektrikoaren aztarna arkeologikoak* bisita gidatua. Barazar gainan.

URRI BIGARRENAK 26
ARRATIA

Arratiako Maratoi Txikia. 08:45etik 09:15era, izen-emoteak. 10:15ean, helduen urtekerea Zeanuritik; 10:30ean, 2007 eta 2011 bitartean jaiotakoen urtekerea Arteatik; 11:30ean, 2012tik aurrera jaiotakoen urtekerea Igorren.

IGORRE

17:00etan, zinea, *Hartz atzapar kanpamentua*; 19:30ean, *Romeria* Lasarte Aretoan.

ZEANURI

11:00etatik 14:30era, Arratiako Andra Sortzaile eta Ekintzaileen V. Azokea.

17:00etan, Bizkaiko Bertsolari Txapelketako finalaurreko lehenengo saioa Ibarreta frontoian.

URRI BIGARRENAK 27
BEDIA

17:30ean, Miriam Herbonek gidatutako bardintasunaren aldeko zineforuma eskoletan.

URRI BIGARRENAK 28
ZEANURI

Zemendiaren 15era arte, baserri eta etxeetarako ke detektagailuak jaso daitekez udaletxean.

URRI BIGARRENAK 29
LEMOA

Ondarearen Europako Jardunaldiak. 11:00etan, *Zementuaren fabrikazioa* bisita gidatua. Cementos Lemona fabrian.

ZEANURI

18:00etan, Felix Mugurutzaren berbaldia *Heriotzarako bizi: euskal ohiturak* Kultur Etxean.

URRI BIGARRENAK 31
BEDIA

Arimen gaua. 17:15etik 18:15era, umeentzako tailerrak ludotekan; 18:30etik 19:30eran, Bego Alabazanen ipuin kontaketea *Johnny Cold Feet* lokal barrian; 19:30ean, Xanduli, manduli, kikiriki, emon goxokiak guri! Plazan.

ZEANURI

10:00etan, Arratiako enpresentzako formakuntza tailerra *Hondakinen kuadeketa*. Errota Fundazioaren instalazinoetan.

Arimen gaua. 18:00etatik aurrera, jokoak, eskulanak, sorgin jantzak, mozzorro desfilea, Zapaburu eta Genio komentuan, kobazuloa, jatekoa eta bildur gaua.

ZEMENDIAK 2
IGORRE

17:00etan, zinea, *Angelo en el bosque misterioso*; 19:30ean, *Acosada* Lasarte Aretoan.

KOMIKIA

Kailo Ren



IRAGARKI LABURRAK

DANERIK

BULEGOA SALDU EDO ALOKATZEN DA

Arrigorriagako erdigunean 43 metro karratuko lokala. Guztiz instalatuta eta altzariz horniduta. Interesdunek deitu 665 709 651 telefonora.

SALTZEAN DODAZ

Lowepro argazkilaritza mobila gorria, neurriak: 26x34x11, prezioa: 35 euro. Umeentzako tipi ohea. 90x190 cm neurrikoa, 90 cm-ko zabalerako koltxoirako. Somierra zoru gainean. Kolorea: egurra eta zuria eta prezioa: 90 euro. Interesdunek deitu 661 273 192 telefonora.

GELA BEHAR DOT ALOKAIRUAN

Pisu konpartidu baten, persona bakar batentzako gela bat behar dot alokairuan. Telefonoa: 642 912 390.

MAHAIA OPARITZEN DOT

Eskola adineko umeentzako mahai aproposa oparitzen dot. Telefonoa 630 363 971.

DORDOKEA TOPAU DOGU

Dordoka bat topau dogu Igorren, San Juan auzoan. Zurea bada, 611 617 137 zenbakira deitu.

KIMIKAKO KLASAEK HARTU GURA DODAZ

Bigarren Baxilergoko kimika klaseak

euskeraz jasoteko nonoren bila nabil abuztuaren hasieratik, ordutegi malguagaz, gero, klaseak urte osoan zehar izateko asmoz zapatuetan ordu biz. Deitu: 638 889 851.

SALTZEAN DOT

Ezkaraiko aparadore bat, 1,50eko mahai eta aulkia, haretx egurrezkoak. Oso egoera onean. Banan-banan erosi ahal dira. Interesdunek deitu 657 777 542 telefonora.

GITARRA KLASAEK EMOTEN DODAZ

Hari's Rock School. Gitarra klaseak emoten dodaz adin guztietarako. Igorreko Kiñu Gaztetxean. Interesdunek deitu 664 303 528 telefonora edo idatzi a.harillo.gracia@gmail.com helbidera.

AUTOA KONPARTIDUTEA

Leioako campusera doazen Arratiako EHUKo ikasleen bila nabil kotxea eta gastuak konpartiduteko. Telefonoa 690 307 910.

Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat begitu@begitu.eus helbidera. Mezuak doban dira.

Begitu-lagunen txokoa



Zenbaki honetako saridunak:

1 Areatzako Udalak emondako *Dolu bat eta dolu bi* liburuaren ale bat.

2 Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera *Aukeran Dantza* Konpainiaren *Amama* ikuskizunerako.

Itziar Urkiaga (Arantzazu)

Zigor Folla (Areatza)
 Izaskun Soloeta (Igorre)



Zerturen argitalpenak jasoko dozuz, zozketetan sartuko zara. BEGITUk 23 urte eta ehundaka lagun.

94 673 90 13/649 979 115 | www.begitu.eus | begitu@begitu.eus

Beko kalea, 2 - Tel. 94 631 73 65 - VILLARO

NAIARA Hartz Klinika

Lehendakari Agirre, 19
 48140 IGORRE
 94 631 52 26

BIZARGINTZA-ILEAPAINDEGIA

94 607 78 33
 LEHENDAKARI AGIRRE 9, IGORRE

LANDA GARAPENA

ARRATIA, UBIDE ETA ZEBERIOKO GARAPENEAN LAGUNTZEN

Ipini zure iragarkia Begitun

649 979 115

inigoirua@begitu.eus

KIRRU

ILEAPAINDEGIA

ROSANA eta ROBER

SABINO ARANA 38
 IGORRE

Tel. 94 631 92 00

Jose Luis Corbacho

pintura lanak

Sabino Arana, 3. 3a
 Igorre 48140 Bizkaia

Tel: 94-673-70-87
 Tel: 609-79-40-54

ZEKUTZE

GAZTETXEA

Sabino Arana, 34
 48140 IGORRE - Bizkaia

Tel: 94 631 52 83

begitu

.eus



BEGITUK **kazetaria** behar dau

Zertu Kultur Elkartearen kazetari zereginetarako lan eskaintzea.

begitu

Eskatzen dogu

- Kazetaritza edo ikus-entzunezko ikasketak.
- Webgune eta sare sozialen kudeaketan ezagutza.
- Argazkigintzan eta bideogintzan ezagutza.
- Idazketa maila altua.
- HABEko C1 euskera maila edo baliokidea.
- Izaera dinamikoa eta hartu-emonetarako gaitasuna.
- Gidabaimena eta motordun ibilgailua izatea.

Balorauko dogu

- Erredaktore beharretan esperientzia.
- Arratiarra izatea edo Arratia, Ubide edo Zeberion bizitea.
- Maketazino eta diseinu ezagutzak.
- Idatzizko bizkaierearen ezagutzea.
- HABEko C2 euskera maila.
- Kurrikulumagaz batera, argitaratutako testu edo lanak bialtzea.
- Genero bardintasunaren inguruko ezagutza edo formazinoa eta genero ikuspegia txertatzeko esperientzia eta sensibildadea.
- Ekitaldi eta aurkezpenetan parte hartzeako jarrera eta komunikazino gaitasuna.
- Prestakuntza jarraiturako interesa (ikus-entzunezko barrikuntzak, kazetaritza etikoa, genero ikuspegia...).
- Eduki digitalen inguruko sormena: podcastak, sare sozialetarako bideo laburrak, TikTok/Instagram-en Reelsak egiteko trebetasuna...

Eskaintzen dogu

- 30 orduko lanaldia astean.

Interesa daukazuenuok kurrikuluma bialdu daikezue urri bigarrenaren 31 baino lehen, helbide honetara: begitu@begitu.eus